

HONDARRIBIA
"B" DOKUMENTUA. HIRIGINTZA ARAUAK
BIGARREN LIBURUA (Testuak)
("Hirigintza Interbentziorako Aretarako" Arau Partikularrak ("1" - "36" HIA)

BEHIN-BETIKO ONESPENA
(1996ko abendua)

IDAZLARIAK:

TEODORO CACHO, abokatua / FRANCISCO DE LEON, arkitektoa

SUSTATZAILEA:

HONDARRIBIKO UDALA

AURKIBIDE OROKORRA:

"A" DOKUMENTUA. MEMORIA

- I. Sarrera
- II. Hirigintza informazioa eta analisia
- III. Antolamendu proposamena

"B" DOKUMENTUA. HIRIGINTZA ARAUAK

Lehen Liburua

Arau Orokorrak / Hirigintza Ondarearen Katalogoa

Bigarren Liburua

"Hirigintza Interbentziorako Areetarako" Arau Partikularrak ("1" - "36" HIA)

Hirugarren Liburua

"Hirigintza Interbentziorako Areetarako" Arau Partikularrak ("37" - "72" HIA)

Laugarren Liburua

Hirigintza Hitzarmenak

"C" DOKUMENTUA. LEHENTASUNEN ORDENA ETA EXEKUZIO EPEAK

"D" DOKUMENTUA. PLANOAK

I. Informazioa

II. Antolamendua

- A. Hirigintza Erregimen Orokorra
- B. Antolamendu sektoriala

PLANGINTZA ARAU SUBSIDIARIOAK

HONDARRIBIA

"B" DOKUMENTUA. HIRIGINTZA ARAUAK

BIGARREN LIBURUA (Testuak)

("Hirigintza Interbentziorako Areetarako" Arau Partikularrak ("1" - "36" HIA))

BEHIN-BETIKO ONESPENA

(1996ko abendua)

IDAZLARIAK:

TEODORO CACHO, abokatu / FRANCISCO DE LEON, arkitektoa

SUSTATZAILEA:

HONDARRIBIKO UDALA

LAN-TALDEA

IDAHLARIAK: Teodoro Cacho Nazábal. Abokatua.
Francisco de León Molina. Arkitektoa.

LAGUNTZAILEAK: Ana Crespo Amado. Arkitektoa (Hirigintza informazio orokorra. "Aurrelaburpena")
Cristina Fontán Villanueva. Arkitektoa (Ondare arkitektonikoaren inbentarioa. "Aurrelaburpena")
David Rebollo Aguayo. Geografoa (Informazio sozio-urbanistikoa. "Proposamena")
Dolores Sierra Agüero. Geografoa (Informazio sozio-urbanistikoa. "Proposamena")
Juan Carlos Cuevas Argandona. Arkitektoa ("Proposamena")
Roberto García Aizpiri. Arkitektoa ("Proposamena")
Josu Iriondo Enparantza. Arkitektoa ("Proposamena")
Blas Urbizu Zabaleta. Arkitektoa ("Proposamena")
Narciso Iglesias Medrano. Bide Injinerua ("Proposamena". Bidetza eta azpiegiturak)

("Behin-betiko onespenerako" egindako testu bategina, Francisco de León Molina arkitektoak egina.)

AURKIBIDEA:

Or.:

-1. HIA. "Zaldumborda I".....	1
-2. HIA. "Zaldumborda II"	4
-3. HIA. "Jaizkibel Urbanizazioa"	8
-4. HIA. "Txingudi Ikastola"	18
-5. HIA. "Bidasoako Ospitalea".....	21
-6. HIA. "Zubieta Enpresa Parkea"	24
-7. HIA. "Mendelu Gibeleta"	30
-8. HIA. "Mendelu".....	34
-9. HIA. "Zubieta".....	38
-10. HIA. "Lau Haizeta".....	41
-11. HIA. "Hiru Zubi".....	45
-12. HIA. "Sauraenea".....	50
-13. HIA. "Planetak"	59
-14. HIA. "San Isidro".....	64
-15. HIA. "Eskapatxulo".....	68
-16. HIA. "Amute"	76
-17. HIA. "Komentuaurre"	84
-18. HIA. "Arkoll"	87
-19. HIA. "Kosta"	93
-20. HIA. "Aireportu Bidea".....	100
-21. HIA. "Aireportua".....	105
-22. HIA. "Txiplao".....	108
-23. HIA. "Santa Engrazia".....	112
-24. HIA. "Itzaberri".....	115
-25. HIA. "Molla"	121
-26. HIA. "Erribera"	130
-27. HIA. "Zumardia"	135
-28. HIA. "Lonja"	141
-29. HIA. "Puntala"	145
-30. HIA. "Bretxa Azpia"	149
-31. HIA. "Damarri".....	155
-32. HIA. "Alde Zaharra".....	161
-33. HIA. "Presa".....	191
-34. HIA. "Mendebaleko Bidea".....	195
-35. HIA. "Biteri"	199
-36. HIA. "Muliata"	204

1. HIA. "ZALDUNBORDA I"

(AZALERA: 14.000 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Bertan dagoen "ibilgailuen zatikapen" instalazioaren kontsolidazioa.

-Eraikuntza interbentzio osagarriak burutzeko derrigorrezko baldintza izango da aldez aurretik ikusmen eta paisaiarekiko eragina zuzentzeko -zuhaitzak landatu eta landaredi naturala birjartzea ezponda eta lurrerauzketetan-, sarbideak eta aparkalekuak urbanizatzeko eta hondakin urak ezabatzeke -estolderiaren antolakera "2. Zaldunborda II" Arcaren sareari konektatuz- neurriak hartzea.

II.HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1.KALIFIKAZIO GLOBALA

-B.200/1 ZONA (Industria Bereziko Zona)

(Azalera: 14.000 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-Zonaren eraikigarritasuna":0.10 m²(s)/m²

-Zonaren eraikuntza probetxamendua":1.400 m²(s)

-Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**II / I**

."Eraikuntza altuera":**9.50 m**

*Erabilera baldintza partikularrak:

-Erabilera bereizgarria":***"Industria"**. ("Ibilgailuen zatikapen" modalitatean -5. Kategoria-. Zatikapen horren ondoriozko produktuen "txikizkako" salmenta barne hartuko du "erabilera lagungarri" gisa).

-Erabilera debekatuak":*Espreski "baimendu gabeko" guztiak.

1. HIA (jarraipena)

2. GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA**

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENENKO EXEKUZIOA.**

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespenetik aurrera.

-Finantzaketa baldintzak: *Ez da izaera orokorreko inbertsio ekintzarik proposatzen.

III. ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA

- "Zonakatze Xehekaturako" baldintzak, izaera arautzailez, "Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakoari lotuko zaizkio.

- "b.200/1 lurzatiari" aplikatu dakizkiokeen
antolamendu baldintzak

.Lurzatiaren azalera (zenbatetsia): **11.247 m²(l)**

. "Eraikuntza probetxamendua": **1.400 m²(s)**

. "Erretiroa": **5.00 m**

- "Aparkamendurako" gutxienezko zuzkidura
(Publikoa, lurzatiaren kanpoaldean): **1 plz./100 m²(s).**

2. HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

Ikusmen eta paisaiarekiko eragina zuzentzeko -zuhaitzak landatu eta landaredi naturala birjartzea ezponda eta lurrerauzketetan-, sarbideak eta aparkalekuak urbanizatzeko eta hondakin urak ezabatzeke -estolderiaren antolakera "2. Zaldunborda II" Arearen sareari konektatuz- neurriak hartu beharko dira.

1. HIA (jarraipena)

3.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

*Exekuzio baldintza orokorrak: *"Iharduketa asistemakoa".

*Lurzatiketa baldintzak: *Definitutako "lurzati eraikigarria" zatiezina izango da hirigintza ondorioetarako.

*Urbanizazio obretarako proiektuak

formulatzeko baldintzak: *Egin beharreko urbanizazio obrak "eraikuntza proiektuaren" "proiektu osagarri" gisa tramitatu ahal izango dira eraikuntza lizentzia berriak eskatzen baldin badira.

Aipatutako obrak era autonomoan egin nahi direnean, horretarako udal lizentzia berezia jaso beharko duen "obra arruntetarako proiektua" formulatuko da.

*Urbanizazio obligazio bereziak: *Dagoeneko aipatu dena, hondakin uren hustuketa sarea eraikitzea "2. Zaldunborda II" Arean egiten den sarearekin lotu arte.

*Exekuzio programa: *Ez da baimendutako eraikuntza probetxamendu berrien exekuziorako derrigorrezko epe jakinik finkatzen.

IV.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE XEHEKATUA

2. HIA. "ZALDUNBORDA II"

(AZALERA: 57.845 m²)

(Hondarribiko udal mug.: 46.550 m² / Irungo udal mug.: 11.295 m²)

I. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Industri zona baten garapena; bertan gaur egun dagoen industri pabiloia (Industrias Lacabanne) barne hartuko da.

-N-I errepiderako maila bikoitzeko sarbideak antolatu beharko dira, errepide honen azpian dagoen iraganbidea erabiliz. Lotunearen behin-betiko trazadura-soluzioa -sarrera eta irteerako bide-adarren luzera handitu egin beharko da eta Donostiatik datorren norantzako sarbidearen aldapa txikiagotu- Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuak definituko dituen norabideei egokitu beharko zaie.

-Hondakin uren hustuketa sarea Irungo Udal Mugartean "ibaian beheara" gaur egun dagoen -edo proiektatzen den- sareari konektatu beharko zaio.

-Areak Irungo udal mugartekoak diren lurak inkorporatzen ditu, guztira 11.295 m²-ko azalera biltzen dutenak ⁽¹⁾. Lur hauek Lurzoru Urbanizagari Programatu Gabekotzat "saiklatzen" dira udalerrri horretako Hiri-Antolaketako Plan Orokorrean ⁽²⁾.

Hori dela eta, alde zuzenetik eremu horretan dagokion "hirigintza iharduketarako programa" formulatu eta tramitatu beharko da eta, halaber, aipatutako bi udalek aurretiazko akordio batera iritsi beharko dute udal mugartean mugaketari eta beharrezkoa den "garapen plangintza" tramitzeko baldintzei buruz.

-"2. Arean" -bi udalerrietakoak diren lurak barne hartuz- "banaketa-arean" bat mugatzen da, bakarra eta independentea, "hirigintza probetxamenduak" esleitzearen ondorioetarako, eta bere eremuan dauden "sistema orokorretara" adskribatutako titulartasun eta jabari publikoko lurzorua banaketa-arean horretatik kanpo uzten dira -"N-1" errepidea eta "Madril/Irun" trenbidea-. Azken honi dagokionez, formulatu beharreko "plangintza partziala" mugaketa zehaztu ahal izateko irizpide gisa, bere mugabanaketa erregularizatzea eta interbentzio eremutik erabat kanpo uztea proposatzen da.

Honi buruzko bestelako datu kontrastaturik ez dagoenez gero, "ereduzko probetxamendua" kalkulatzearen ondorioetarako, jabetzak egindako zenbatespenen arabera afektatutako "finika pribatuen" azalera hartu da erreferentzia gisa -40.103 m²-.

-Arearen "exekuziorako", bestalde, "exekuzio unitate" bakar bat mugatuko da eta, bertan biltzen diren zirkunstantzia bereziak kontuan hartuta, "kanpoko" urbanizazio obligazioak esleitzen zaizkio -"N-1" errepidetiko sarbideen eraikuntza-.

Unitate horretan, "urbanizazio kargak" ebaluatu eta Arean "hirigintza probetxamenduen" titularrak diren artean karga horiek esleitzearen ondorioetarako, jabetzak dagoeneko exekutatu dituen eta garapen berriari inkorporatuko zaizkion sarbide eta kanalizazio obrak kontuan hartuko dira.

⁽¹⁾Dokumentu honek Arean proposatu duen udal mugarte hauen mugaketa auzitan jarri du Irungo Udalak Hondarribiko Arau Subsidiarioen espedientearen tramitazioan. Hondarribiko Udalak ezetsi egin zuen alegazioa Arau hauei zegokien "behin-behineko onespenerako" erabakian, eta auzia Areako antolamenduaren garapen eta exekuziorako fasean konpontzeko utzi zuen.

⁽²⁾Tramitatzen ari da.

2. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

B.100/2 ZONA (Industria Intentsiboko Zona) (Azalera: **38.460 m²**)
(Hondarribiko udal mug.: 30.235 m² / Irungo udal mug.: 8.225 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

- "Zonaren eraikigarritasuna" ⁽³⁾:

. "Lurzati okupagarrian": **0.40 m²(lo)/m²**

. "Sabai eraikigarrian": **0.60 m²(s)/m²**

- "Zonaren probetxamendua" ⁽⁴⁾:

. "Lurzati okupagarrian": **15.385 m²(lo)**
(Hondarribiko udal mug.: 12.095 m²[lo])
(Irungo udal mug.: 3.290 m²[lo])

. "Sabai eraikigarrian": **23.076 m²(s)**
(Hondarribiko udal mug.: 18.141 m²[s])
(Irungo udal mug.: 4.935 m²[s])

- Eraikuntzaren forma erregulatzeko duten parametroak:

. "Eraikuntza profila": **II / I**

. "Eraikuntza altuera": **9.50 m**

. Lurzatiketa baldintzak:

- Gutxienezko tamaina: **250 m²(lo)**

- "Bide pareko" gutx. zabal.: **8.00 m**

* Erabilera baldintza partikularrak:

"Erabilera baimenduak": **"Hirugarren sektorekoak"**. (Areari "sabai eraikigarrian" esleitutako "eraikuntza probetxamenduaren" %40raino):

- "Hotel erabilerak".

- "Merkataritza erabilerak". ("2.", "3." eta "4. kategoriakoak").

- "Atsedeen erabilerak".

E.110/2 ZONA (Hiriarteko errepidea / SO) (Azalera: 19.385 m²)
(Hondarribiko udal mug.: 16.315 m² / Irungo udal mug.: 3.070 m²)

⁽³⁾ Irabazirik gabeko zuzkidura erabileretara destinatzen diren "eraikuntza probetxamenduak" kanpo; beraien definizioa "plan partzialera" eragortzen da.

2. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***LURZORU URBANIZAGARRIA.**

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***PLAN PARTZIALA**

-"Hirigintza probetxamendua"
esleitzeko baldintza orokorrak ⁽⁴⁾:

. "Banaketa-Area": **III**

. "Ereduzko probetxamendua": **0.576 m²(s)(B.100)/m²**

. Partikularrek beregana dezaketen

"hirigintza probetxamendua"

("ereduzko probetxamenduaren" %85): **0.490 m²(s)(B.100)/m²**

-Programazio baldintzak: * "Plan partziala" **urtebeteko (1)** epean formulatu beharko da, bere garapena legeztatu behar duten dokumentuetariko azkena -Hondarribiko Arau Subsidiarioak edo Irungo udal mugartekoa den azpiareako "iharduketa programa"- onesten denetik hasita.

"Plan partzialak", indarrean dagoen hirigintza legeriak ezartzen duenari jarraiki, bere zehaztapenen artean "sektoreko" "jabetzak" gainerako hirigintza obligazioak betetzeko epeen definizioa barne hartuko du derrigorrez.

-Finantzaketa baldintzak: *N-I errepiderako sarbideak Arearen jabetzak finantzatuko ditu beren osotasunean.

⁽⁴⁾Ikus dokumentu honetako "Lehen Liburua. Arau Orokorrak" liburuaren **2.2.3.** artikulua.

2. HIA (jarraipena)

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

- "Eraikuntza lerroa":*N-1 : 25.00 m galtzadaren ertzetik -baldintza hau betetzetik salbuetsita geratzen da kontsolidatzen den "Industrias Lacabanne" eraikina-.

***Madril-Irun Trenbidea : 19.00 m** plataformaren ertzetik.

III.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE GLOBALA ("Plangintza orokorraren" lerruna duten zehaztapan xehekatuak")

3.ANTOLAMENDU XEHEKATUA (Adierazpen proposamena)

3. HIA. JAIZKIBEL URBANIZAZIOA

(AZALERA: 2.001.408 m²)

I. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-1986ko martxoaren 15ean behin-betiko onetsi zen "Jaizkibel Antolamendu Plana" deiturikoaren arabera egin zen "Eraikuntza Bakaneko" egoitza garapenaren kontsolidazioa "behin-betiko onetsi" ez zen geroagoko "planaren aldaketarako" espediente bat exekuziorako erreferentzia efektibo gisa hartu da- dagoeneko urbanizazio xede izan diren lurzatieta, eta antolamenduari dagokionez baldintza beretsuak dituzten oraindik okupatu gabeko "lurzati" okupazioa, bai eta "aipatutako planeko" eremukoak diren zenbait lursail mugakide ere.

Bere antolamenduaren kontsolidazioa jasotzen duen eremuak, halaber, "Jaizkibel Golf Klubaren" instalazioak barne hartzen ditu.

Aipatutako "planak" afektaturiko lurraldearen gainontzekoa Lurzoru Ez Urbanizagarri gisa kalifikatuta geratuko da.

-Izara orokorrean, "lurzati eraikigarri" bakoitzeko etxebizitza bakar baten eraikuntza baimentzen da -hauek ezin izango dira inolako kasutan ezarrita dagoen "lurzati azalera" baino zati txikiagotan banandu-.

Hala eta guztiz ere, "lurzati" bat definitzen da bereziki, bertan "famili bakarreko" 18 etxebizitza "adosatu" garatzea baimentzen delarik.

-Espreski ezartzen diren salbuespenekin, Areako "espazio libre" eta "bideak" titulartasun eta "erabilera" pribatukoak izango dira, beronen jabeen multzoari dagokiolarik bere mantenimenduaren erantzukizuna.

Obligazio hau betetzen dela garantizatzeko, "artapen entitate" bat eratuko da, eta era berean bertan bildu ahal izango dira Irungo Udal Mugartean kokatuta dauden "Jaizkibelgo Antolamendu Planeko" "A lurzati" titularrak, "3" Arearekin batera hirigintza eremu homogenoa eratzen baitute eraikuntza tipologiari eta funtzionamendu unitarioari dagokionez.

-"N-I" errepidetik Arearako sarbide-gurutzagunea, "Junkera" baserriaren hegoaldean kokaturik dagoena, ezabatzea proiektatzen da, Eskualde Ospitalerako sarbide-gurutzagunea izan dadin areara heltzeko gune bakarra.

Halaber, 25.00 metroko zerrenda bat erreserbatzen da, errepide horren galtzadako ertzetik hasita -lerro zuria-, etorkizunean errepidea zabaldu ahal izateko.

-Jaizkibelgo hegoaldeko mendi-hegalaren goialderako sarbide publikoa ziurtatu ahal izateko, izaera orokorreko "erabilera publikoko zortasunpean" geratuko dira Arearen iparraldean "Estehutserako" sarbidea- eta hegoaldean kokatuta dauden bideak -bere erdialdeko tartean exekuzio berrikoak-. Areako gainerako bideak oinezkoiei eta garraiobide "motorizatu gabeei" zuzendutako "erabilera publikoko zortasun" murriztu baten pean geratuko dira.

-"Kaiku" baserriaren hegoaldean kokaturik dagoen "espazio libre" handia -neurri handi batean zuhaitzua- eta N-1 errepidetik Arearen iparraldeko sarbidearen aldamenean, "Junkera baserriaren" ondoan dagoen "espazio librea" "jabari publikokoak" izango dira.

3. HIA (jarraipena)

-Arearen exekuziorako **"3.1."** EU eta **"3.2."** EU "exekuzio unitateak" mugatzen dira.

"3.1." EU exekuzio unitatea dagoeneko urbanizatuta dauden Areako lursailek eratzen dute, eta bertan egun dauden zerbitzuen konponketa eta osaketarako obra desberdinen beharra planteatzen da.

"3.2." EU exekuzio unitateak proposatutako bide berriaren exekuzioaz eta aurrikusiriko jabari publikoko "espazio librearen" "lagapena" garantizateaz arduratu behar diren "garapen berriko" lurzoruak barne biltzen ditu.

-**"3.1."** EU exekuzio unitatean, eraikuntza berria gauzatzeko ezinbesteko baldintza izango da burutu beharreko urbanizazio obrak -saneamendua, ur hornidura, argiteria publikoa eta bide eta espaloien birzolaketa-definituko dituen urbanizazio proiektu bat aldeztatik onestea, gaur egun dauden zerbitzuak nahiko zaharkitua eta askiezak baitira, beronen exekuzioa eraikuntza berrien lehendabiziko erabilpenerako lizentzien emakida baino lehen egingo dela bermatu beharko delarik.

Era berean, dagokion "lurzatiketa-proiektuaren" onespena galdatuko da, ondorengoa bermatuz: Udalari indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen atsedeen probetxamenduak lagatzea -beren eraikuntza eskubideak garatu ez dituzten lurzati jabeek soilik-, eta era berean "erabilera publikoko zortasumen" eta ezarrita dauden urbanizatu eta lagatzeko obligazioen inskribapen erregistrala; azkenik, urbanizazioaren etorkizuneko mantenimendurako baldintzak definitu beharko ditu lurzatiketa-proiektuak.

Hala eta guztiz ere, aurreko obligazioak ordezkatu ahal izango dira, lehenik aipatutako "Artapen entitatea" eratu ondoren, honen eta Hondarribiko udalaren arteko "hitzarmen" batekin, zeinak Udal Korporazioari garantizatu beharko dion afektatutako jabe guztiek urbanizazioa konpondu, hobetu eta bukatzeko obligazioa, eta aipatutako bide batzuetan ezarritako "iragan-zortasun publikoen" "lagapena" beteko dutela. Horretarako, "artapen entitatea" hasiera batean **"3.1."** EU exekuzio unitatearen eremuan eratu ahal izango da, hala dagokionean, Irungo udal mugartean kokatutako "A lurzatiak" inkorporatuz.

-**"3.2."** EU "exekuzio unitatea" "konpentsazio" sistemaren bidez exekutatu da, eta bere kargurakoak diren urbanizazio obligazioek "Junkera" baserriaren hegoaldean dagoen Arearako sarbidearen ezabaketa eta Areatik kanpo geratzen den Eskualde Ospitalerako sarbide-gurutzagunetiko sarbide alternatiboaren tarteararen zabalkuntza eta hobekuntza barne hartuko dituzte, adierazitako baserriaren lurrak inguratuz -hala badagokio, beharrezko luraren erosketa barne hartuko du-.

Arau Partikularrean bere eremuan "erabilera" eta "jabari" publikora destinatutako lursailen "lagapenaren" onuraduna Udala izango da, eta "artapen entitatea" titulartasun pribatuko "irabazizkoak ez diren erabileretara" destinatutako lursailena, "erabilera publikoko zortasunpean" geratzen direnak barne hartuz.

Aipatutako "entitateak" azkeneko lursail horiek urbanizatuak izan ondoren jasoko ditu, eta beren urbanizazioaren mantenimenduaz arduratuko da, derrigorrez bertan integratuko direlarik une horretatik aurrera **"3.2."** EU exekuzio unitatean mugatutako "lurzati eraikigarri" desberdinak.

-Honako Area honetan, "Urdanibiako hariztiak" eta bertako "historiaurreko hobi" eta "baserri" desberdinak "katalogatzen" dira.

3. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

-A.500/3 ZONA (Eraikuntza Bakaneko Egoitza Zona)

(Azalera: 1.991.798 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"a.500 lurzatiak":

. "Lurzatiketa" baldintzak:

-Gutxienezko "lurzati azalera": **3.600 m²(l)**

-Bide pareko alde "gutzien": **8.00 m**

-Baldintza hauek betetzen ez dituzten "a.500 lurzatiak" kontsolidatu egiten dira.

. "Lurzati eraikigarritasuna": **0.10 m²(s)/m²(l)**

.Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

- "Eraikuntza profila": **III / I**

- "Eraikuntza altuera": **8.00 m**

- "Erretiroa": **5.00 m**

-"a.410/3.11 lurzatiak":

. "Lurzati eraikigarritasuna": **0.18 m²(s)/m²(l)**

.Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak: * "a.500 lurzatiak" dauden berberak.

-"g.000 lurzatiak":

. "Eraikuntza probetxamendua":

- "g.000/3.1 lurzatiak"

("Jaizkibel" Golf Kluba.

Klubaren Eraikina): **2.000 m²(s)**

- "g.000/3.2 lurzatiak"

("Jaizkibel" Golf Kluba.

Igerilekuak): **500 m²(s)**

- Gainerako "g.000 lurzatiak": * "Eraikuntza probetxamendurik" gabe.

.Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak: * "a.500 lurzatiak" dauden berberak.

3. HIA (jarraipena)

*Erabilera baldintza partikularrak:
(Etxebizitza kp. / lurzati):

-"a.500 lurzatiak":**etx. 1**

-"a.410/3.11 lurzatia":**18 etx.**

-**E.110/3 ZONA** (Hiriarteko Errepidea / SO)

(Azalera: **9.610 m²**)

Kalifikatutako lur-errenkadaren "zabalera":**25.00 m**(Egun dagoen galtzadaren ardatzetik neurtuta)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA.**

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENEKO EXEKUZIOA.**

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespentik aurrera.

-Finantzaketa baldintzak: *Ez da izaera orokorreko inbertsio ekintzarik proposatzen.

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritako "a lurzatiaren" guztizko azalera kontsolidatzen da esleitutako "zonaren probetxamenduaren" gehieneko muga gisa.

-Lerrun arautzaile honekin kontsolidatzen dira "a.410/3.11 lurzatiaren" eta "Jaizkibel Golf Klubak" okupatzen dituen lurzatiaren "Kalifikazio Xehekatuko" baldintzak "-erabilera", eraikuntza erregimena eta "zonakatzea";-; bai eta Arau Partikular honetan definituta dauden "bide pribatuen" gaineko "erabilera publikoko" zortasunak ere.

-"N-I" errepidearen "eraikuntza lerroa":**25.00 m** (Galtzadaren ertzetik).

3. HIA (jarraipena)

III. ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA

- "Zonakatze Xehekaturako" baldintzak, izaera arautzailez, "Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakoari lotuko zaizkio.

- Antolamenduaren ezaugarriak:

* "Etxebizitza erabileraren ezaugarriak" ⁽⁶⁾:

- "a.500 lurzatiak":

. "Lurzati" azalera guztira: **911.660 m²(l)**

. Lurzati kopurua: **206 lurz.**

. Etxebizitza kopurua:

- Egungoa: **73 etx.** ⁽⁶⁾

- Proiektatutakoa: **133 etx.**

- Guztira: **206 etx.**

- "a.410 lurzatia":

. Azalera: **20.280 m²(l)**

. Etxebizitza kopurua (Proiektat.): **18 etx.**

. "Sabai azalera eraikigarria": **3.650 m²(s)**

* "Zuzkidurak":

- "f.110 parkea" (TS/Jabari eta erabilera publikoak):

. "f.110/3.1" espazio librea: **5.030 m²**

. "f.110/3.2" espazio librea: **88.800 m²**

. Guztira: **94.830 m²**

- "g.000/3 kirol parkea" (Jaizkibel Golf Kluba/Titulartasun pribatua):

. "g.000/3.1 lurzatiak"

(Golf Kluba): **647.546 m²(l)** ⁽⁷⁾

. "g.000/3.2 lurzatia"

(Tenis Kluba): **20.000 m²(l)** ⁽⁸⁾

. "g.000/3.3 lurzatiak"

(Zehaztu gabeko erabilera): **60.640 m²(l)**

Guztira: **728.186 m² (l)**

⁽⁶⁾Zenbatetsitako datuak.

⁽⁸⁾Proiektuaren zenbatespena "hasierako onespenerako".

⁽⁷⁾Irungo udal mugarteko lurak barne hartzen ditu.

3. HIA (jarraipena)

2. ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

*"a lurzatiak":

- "a lurzatietan", "lehendabiziko erabilerarako" lizentziaren emakidarako beharrezkoa den urbanizazio osagarriaren zati gisa, beronen barnean bertako espezieetako zuhaitzen landaketa galdutako da, eraikitako 5.00 m²(s) bakoitzeko zuhaitz bat landatu beharko delarik gutxienez.

- "a lurzatiak" instalazio orokorren eroanbideen "bide-zortasun" bati loturik geratzen dira, bere mugetatik hasi eta **2.00 metroko zabalerako** errenkada batean.

*"a.410/3.11 lurzatia":

Esleitutako "eraikuntza probetxamenduaren" barruan, aurrikusitako "etxebizitza adosatuetara" adskribatutako "azpilurzati" bakoitzean "garajera" destinatutako "eraikuntza lagungarriak" ezartzea baimentzen da, beti ere eraikuntza nagusitik bereiz ezartzen badira.

- Gehienezko "eraikuntza probetxamendua": **30.00 m²(s)**

- Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila": **I / -**

."Eraikuntza altuera": **3.50 m**

."Erretiroa": * Ez da galdatzen.

*"Espazio libreak" eta bideak:

- "f.100/3.1" eta "f.100/3.2" "espazioak" izan ezik, Arean kalifikatutako "espazio libreak" titulartasun eta "erabilera" pribatukoak izango dira.

- "N-1" errepideko sarbidearen hasierako tartea izan ezik -"Ospitaleko" bidegurutzeari, Arean egun dauden eta proiektaturik dauden bide guztiak titulartasun pribatukoak izango dira; hala eta guztiz ere, oinezkoen eta garraiobide "motorizatu gabeen" sarbiderako "erabilera publikoko zortasunpean" geratzen dira.

- Horrez gain, "2. Zonakate Xehekatua" planoan bereziki adierazten diren bideetan, "erabilera publikoko zortasun" hori garraio motorizatuari zabalduko zaio eta inolako murrizketarik gabe gauzatuko da.

3. HIA (jarraipena)

3.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

-3.1." EU:

.Gainazaleko urbanizazioa konpondu egin beharko da -galtzada eta espaloien zolaketa- eta gaur egun dagoeneko behar adinakoak ez diren hiri-zerbitzuen instalazioak berriztatu eta beren ahalmena -ur hornidura, estolderia, elektrizitate hornikuntza eta kanpoaldeko argiteria- aurrikusirik dagoen garapen berriaren beharretara egokitu beharko da.

.Estolderia osatu egingo da eta aurrikusirik dagoen sare orokor berriari konektatuko zaio -"ur beltzak" soilik-.

-3.2." EU:

"Unitatearen" urbanizazio orokorra, honako hauek barne hartuz: "lurzati" berrientzako hiri-zerbitzuen ezarpena, proiektatutako bide berrien eraikuntza, "Junkera" baserriaren jabegoak inguratzen dituen Arearen kanpoaldeko zatia barne, eta "f.100/3.1" "espazio librearen" egokitzapena.

4.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

*Exekuzio baldintzak:

-Baldintza orokorrak: *3.1." eta 3.2." EU "exekuzio unitateak" mugatzen dira Arean.

"3" Arean urbanizazioa mantentzeko galdatzen den "artapen entitatea" eratu ondoren, 3.1." EU exekuzio unitatearen "exekuzio sistematikoaren" obligazioa ordezkatu ahal izango da aipatutako "entitatearen" eta Hondarribiko udalaren arteko "hitzarmen" batekin, "entitate" horrek urbanizazioaren beharrezko berregokitzapenaren finantzaketaren eta bere eremuan definitutako iragan-zortasun publikoen ezarpenaren ardurua bere gain hartuko duela garantizatzen duena.

-Kudeaketa sistemak: *KONPENTSAZIOA bi "exekuzio unitateetan".

3. HIA (jarraipena)

-Exekuzio unitateetako"
"batezbesteko probetxamendua":

.3.1." EU:

0.10 m²(s)/m². (Egungo "a.500 lurzatiien" azalerari buruz adierazia)

.3.2." EU:

0.082 m²(s)/m². ⁽⁸⁾ (Jabetzak "exekuzio epeak ez betetzearen" ondorioetarako soilik aplikatzekoa. "Probetxamenduak" efektiboki "esleitzearen" ondorioetarako, dagokion "berdinbanaketa proiektuak" zehazten duena aplikatuko da)

-Lagapenak:

.3.1." EU:

Bere eremuan ezarritako "erabilera publikoko zortasunak" erregistroz formalizatu beharko dira.

.3.2" EU:

"Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan definiturik dauden "espazio libreak" eta "bide publikoak" Hondarribiko Udalari lagako zaizkio, Areatik kanpo geratzen den hauetako azkenaren tarteunea barne -bere zabalkuntzarako beharrezko lurzorua "unitateari" inkorporatu ahal izango zaio-.

Era berean, "3" Arearen "artapen entitateari" titulartasun pribatuko "irabazizkoak ez diren erabileretara" destinatutako lursailak lagako zaizkio, bere eremuan "erabilera publikoko zortasunpean" geratzen direnak barne hartuz, erregistroz formalizatu beharko direlarik.

*Lurzatiketa baldintzak:

Arau Partikular honek ezartzen duen "lurzatiketa" aldatu ahal izango da hirigintza legeriak eta Arau Subsidiarioek izaera orokorrean ezartzen dituzten prozeduren bitartez, Arau Partikular honek zehazten duen "zonakatze xehekatua" eta gutxienezko "lurzati azaleraren" baldintzen barruan.

***3.2." EU exekuzio unitatearen guztizko azalera:224.680 m²**

-a.500" probetxamendua (Pond. koef.: "1"):13.680 m²(s) a.500

-a.400" probetxamendua (3.650 m²(s); pond. koef.: "1.2"):4.380 m²(s) a.500

-g.000" probetxamendua (15.600 m²; pond. koef.: "0.03"):468 m²(s) a.500

3.2." EU exekuzio unitateko guztizko probetxamendua:18.528 m²(s) a.500

3. HIA (jarraipena)

*Urbanizazio obretarako proiektuak
formulatzeko baldintzak:

"Urbanizazio proiektuak" formulatu eta tramitatuko dira ezarritako "exekuzio unitate" bakoitzean.

"3.1." EU exekuzio unitatearen eremuan, "urbanizazio proiektuak "lurzatitu gabeko" espazio guztiak afektatuko ditu -"a.500 lurzatiak" eta "g.000 lurzatiak" hartuko dira halakotzat-.

"Exekuzio unitate" honetan, berari dagokion eremuan eraturako "artapen entitatearen" eta Udalaren artean lehenago aipatutako "hitzarmena" aldez aurretik formulatzen baldin bada, dagokion "urbanizazio proiektuaren" formulazioa ez da beharrezkoa izango.

*Exekuzio programa:

Bi "unitateetan" sei (6) hilabeteko gehienezko epea ezartzen da "konpentsazio batzordearen oinarriz eta estatutuen proiektuaren" aurkezpenarako, eta urtebeteko (1) epea "urbanizazio" eta "konpentsazio" proiektuen aurkezpenarako.

"Jabetzak" gainontzeko hirigintza obligazioak betetzeko, indarrean dagoen hirigintza legeriak Hiri-Lurzorurako ezarrita dauden baldintzak eta epeak aplikatuko dira.

*"Eraikitze eskubidearen" eskuraketa:

Aldez aurretik ezarrita dauden "lagapen", "berdinbanaketa" eta "urbanizazio" obligazioak betetzera baldintzatuta geratuko da.

*Urbanizazioaren mantenimendua:

"3" Area osorako "artapen entitate" bat eratuko da, mantenimenduaren, hiri zerbitzuen funtzionamenduaren eta titulartasun pribatuko "espazio libre" eta "bideen" urbanizazioaren erantzule izango delarik, azken hauetan "erabilera publikoko zortasunpean" geratzen direnak barne hartzen direlarik.

Hala dagokionean, bertan bildu ahal izango dira Irungo Udal Mugartean, N-1 errepidearen Mendebaldean, kokatuta dauden "Jaizkibelgo Antolamendu Plan" zaharreko "A lurzatiak".

"Artapen entitatea", hasiera batean, ezarritik dagoen edozein "exekuzio unitate" eremu eskusiboan eratu ahal izango da -eta, hala dagokionean, aipatutako Irungo lurraldean- bertan dagozkion hirigintza obligazioak bete eta gero.

Geroztik, derrigorrez entitate horretan sartuko dira, behar izan hori betetzen den unetik aurrera, gainontzeko "unitateari" dagozkion "lurzati eraikigarriak".

3. HIA (jarraipena)

*Eraikin eta elementu "katalogatuak": **A. Interes Naturalistikoa duten Elementuak**

.A.2Urdanibiako hariztiak.

B. Hobi Arkeologikoak

.B.1"Bordagaineko" historiaurreko hobia.

.B.2"Manziategi-Zarreko" historiaurreko hobia.

H. Egoitza Eraikuntza Landatarra

.H.2"Kamio" baseria.

.H.3"Manziategi-zar" baseria.

.H.4"Manziategi-berri" baseria.

.H.5"Landagorrieta" baseria.

.H.6"Berrotaran" baseria.

.H.7"Iturmendieta" baseria.

IV. PLANOAK

1. EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2. ZONAKATZE XEHEKATUA ("plangintza orokorraren" lerruna duten zehaztapan xehekatuak)

3. HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZAK

4. HIA. "TXINGUDI IKASTOLA"

(AZALERA: 62.685 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Gaur egun dagoen eskola instalazioaren kontsolidazioa, bere zabalkuntza baimenduz ezartzen diren eraikuntza probetxamenduko mugen barnean. Era berean, "Urdanibiako auzumeko" "hipika" instalazioak kontsolidatu egiten dira, Hondarribiko udal mugartean kokaturik dagoen ezarpen eremuaren zatiari dagokionez.

II.HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1.KALIFIKAZIO GLOBALA

-G.000/4 ZONA (Ekipamendu Komunitariorako Zona / SO)

(Azalera: 59.085 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-Eraikuntza probetxamendua":11.000 m²(s)

-Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**III / I**

."Eraikuntza altuera":**13.00 m**

."Erretiroa":**5.00 m**

*Erabilera baldintza partikularrak:

"Erabilera bereizgarria": *ESKOLA EKIPAMENDUA.

-E.110/4 ZONA (Hiriarteko Errepidea / SO)

(Azalera: 3.600 m²)

Kalifikatutako lur-errenkadaren "zabalera":**25.00 m** (Egun dagoen galtzadaren ardatzetik neurtuta)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA.**

-Plangintzaren garapen eta

exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENEKO EXEKUZIOA.**

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespentik aurrera.

4. HIA (jarraipena)

-Finantzaketa baldintzak: *Ez da izaera orokorreko inbertsio ekintzarik proposatzen.

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-"Eraikuntza lerroa":

."N-I" errepidea: ***25.00 m** (Galtzadaren kanpoaldeko mugatik).

."Jaizubia" erreka: ***5.00 m** (Ubidetik)

-Arau Partikular honen "3. Eraikuntzaren xehekapen baldintzak" planoan ezarritako "g,000/4.2 lurzatiaren" eremuan eraikitzeko debekuari esleitzen zaio lerrun arautzaile hori.

III.ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1.KALIFIKAZIO XEHEKATUA

"Zonakatze Xehekaturako" baldintzak "Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakora egokituko dira arauzko izaeraz.

2.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

Hondakin uren isurketa estolderi sare orokor berriari konektatu beharko zaio.

4. HIA (jarraipena)

3.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

-Exekuzio baldintza orokorrak: ***Exekuzio asistematikoa**.*

-Lagapenak: *"N-I" Errepidearen ertzean dagoen oinbideak afektatzen duen lurzorua Udalari laga beharko zaio.

-Lurzatiketa baldintzak: *Ezarrita dagoen "lurzati eraikigarria" zatiezina izango da hirigintza ondorioetarako.

-Urbanizazio obretarako proiektuen

formalizaziorako baldintzak: *Burutu behar diren urbanizazio obrak, ikastetxearen instalazioak zabaltzen diren kasuan, eraikuntzakoaren "proiektu osagarri" batean definituko dira.

-Exekuzio programa: *Ez da derrigorrezko epe jakinik finkatzen baimendutako eraikuntza probetxamendu berrien exekuziorako.

IV.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE XEHEKATUA

3.ERAIKUNTZARAKO XEHEKAPEN BALDINTZAK ("plangintza orokorraren" lerruna duten zehaztopen xehekatuak)

5. HIA. "BIDASOAKO OSPITALEA"

(AZALERA: 44.074 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Gaur egun dagoen "Osakidetzako" sarearen ospitale instalazioaren kontsolidazioa, bertan etorkizunean egin daitezkeen zabalkuntzak baimenduz, esleitutako "zonaren eraikigarritasunaren" barnean.

-Arean "espazio libretara" destinatzen diren lur desberdinak barne hartzen dira, Irungo Udalak lortu dituelarik "Pujana" Arearen hirigintza garapenaren bitartez zuzkidurazko lagapen gisa, puntu horretan Hondarribiko udalerriarekin mugakide baita.

II.HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1.KALIFIKAZIO GLOBALA

-G.000/5 ZONA (Ekipamendu Komunitariorako Zona / SO)

(Azalera: 41.760 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"Lurzati eraikigarritasuna":**0.60 m²(s)/m²(l)**

-"Eraikuntza probetxamendua":**25.056 m²(s)**

-Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**III / I**

."Eraikuntza altuera":**13.00 m**

."Erretiroa" (Eraikuntza berriak):**10.00 m**

*Erabilera baldintza partikularrak:

-"Erabilera bereizgarria": * **OSPITALEA** (Osakidetzeta / Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila)

5. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA**.

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENENKO EXEKUZIOA**.

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespenetik aurrera.

-Finantzaketa baldintzak: *Ospitale instalazioan egin litezkeen inbertsio ekintzak ospitalearen titularra den organismoak finantzatuko ditu. Ez da izaera orokorreko bestelako inbertsio ekintzarik proposatzen.

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

"Bidasoako Eskualde Ospitalera" heltzeko

"toki errepidearen" "eraikuntza lerroa":**18.00 m** (Galtzadaren kanpoaldeko mugatik)

5. HIA (jarraipena)

III.ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1.KALIFIKAZIO XEHEKATUA

"Zonakatze Xehekaturako" baldintzak Arau Partikular honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakora egokituko dira arauzko izaeraz.

2.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

Hondakin uren isurketa estolderi sare orokor berriari konektatu beharko zaio.

3.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

-Exekuzio baldintza orokorrak: ***Exekuzio asistematika**.*

-Lurzatiketa baldintzak: *Ezarrita dagoen "lurzati eraikigarria" zatiezina izango da hirigintza ondorioetarako.

-Exekuzio programa: *Ez da derrigorrezko epe jakinik finkatzen baimendutako eraikuntza probetxamendu berrien exekuziorako.

IV.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE XEHEKATUA

3.ERAIKUNTZARAKO XEHEKAPEN BALDINTZAK ("plangintza orokorraren" lerruna duten zehaztapen xehekatuak)

6. HIA. "ZUBIETA ENPRESA PARKEA"

(AZALERA: 443.600 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Enpresa parke" baten garapena "ekimen publiko" bidez -edozein kasutan momentuz ez da definitzen aplikatu beharko den "kudeaketa sistema"- bertan soilik ezarri ahal izango direlarik maila teknologiko handia duten eta "ez-kutsagarriak" diren enpresak, enpresa bulego eta egoitzak, merkataritza -azalera handiko merkataritza instalazio baten balizko ezarpena aurrikusten da-, administrazio eta hotel instalazioak, eta askotariko ekipamendu publikoak, azkenik aipaturiko hauen artean 85.000 m²-ko gutxienezko azalera duen "parke" zuzkidura bat barne hartuko delarik, aldameneko egoitza zonen defentsa gisa kokatuko dena.

Eskualdeko "kirol parke" bat ezarri ahal izango da Arean -"San Pablori Itxian" ezartzea proposatzen da, "Txingudi/Jaizubiako Antolamendu eta Babeserako Plan Bereziaren" exekuzioak afektatzen dituen "Plaiandiko" instalazioak ordezkatuko dituen, eta horretarako, hala dagokionean, beste 8 ha gehigarriko gutxienezko azalera erreserbatuko da.

Era berean, esleitutako "probetxamenduaren" barruan, "plan partzialak" Arean dauden egoitzetarako eraikuntzak kontsolidatu ahal izango ditu, bai eta beronen barruan beste kokaleku batean bihurtzea erabaki ere.

-Garapen plangintzak espreski instrumentatu eta erregulatu beharko duen berariazko helburu gisa ingurugiro eta paisaiari dagokionez kalitate handiko baldintza zorrotz batzuen ezarpena finkatzen da, hala nola: egun dauden errekaak eta itsas kanalak eraberritu eta zaintzea; eraikuntzak luraren kontu handiz integratzea; hauen kanpoaldeko tratamenduen kalitate eta estetika baldintza zorrotzak eskatzea; kanpoaldean merkagaiak, hondakinak edota industri materialak biltzeko debekua; eta kanpoaldeko urbanizazioaren tratamendu arretatsua; bertan dimentsio handiko elementu artifizialak ahal den neurrian ezabatu egingo dira, eta lorategiak dituzten zonen tratamendua arreta handiz zainduko da, eta eraikitako elementuek -eraikuntzak, aparkamendu-zabalguneak eta bestelakoak- bistan duten eragina txikiagotuko duen zuhaitzi landaketa intentsiboa burutuko da.

-Enpresa parkearen" garapenerako derrigorrezko baldintza izango da Arearako sarbide sistema berri baten eraikuntza N-I errepidetik - bide honen eta Eskualde Ospitalera eta "Zubieta hiribidera" sartzeko "Toki Errepidearen" arteko maila bikoitzeko lotura - eta Zubieta hiribidetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuak gai honi dagokionez ezartzen dituen baldintzen arabera.

-Area hau "itsas-lehorreko jabari publikoaren" -"Jaizubiako erreka"- "zortasun-zonak" afektatzen du. Lurzoru Urbanizagarri gisa sailkatuta dagoenez gero, "babeserako zortasun-zona" horrek 100.00 metroko hondo batean du eragina, "itsas bazterretik" neurtuta.

Halaber, Area hau Donostiako Aireportuaren "zortasun aeronautikoen", eta "N-I" eta "N-638" errepideetako eta "Bidasoako Eskualde Ospitalerako sarbide-errepideko" eraikuntza lerroak" ere afektatzen dute.

6. HIA (jarraipena)

-Arearen sustapena Hondarribiko Udalak hitzartuko du iharduera ekonomikoaren sustapenaren arduradun diren beste administrazio batzuekin -Eusko Jaurlaritzako Industri Saila, Foru Aldundiko Industri Departamentua, eta Irungo Udala- edota hauek horretarako sortu dituzten sozietate publiko instrumentalekin.

Hautabidez, zuzenean sustatu ahal izango da, bai eta ekimen pribatuarekin hitzartu ere.

-Aurrikusita dagoen garapenaren hedadura eta proposatutako lurzoru eskaintzaren izaera hautakorra direla medio, Area honetarako formulatzen den "plan partzialak" bere aurrikuspenen exekuziorako "etapa" bat baino gehiago ezarri ahal izango du, berauek, egokituz jotzen bada, "exekuzio unitate" desberdindu gisa egituratuz, zeinei, aurrikusita dauden "sustapen publikoko" helburuekin bat etorritik, "desjabetzapen sistema" aplikatu ahal izango zaien.

-Areak "banaketa-area" independentea osatzen du -**II** **Banaketa-Area**- bere kalifikazio-baldintza bereziak eta bere garapenaren programazioa etorkizunean aurrikustezina dela kontuan izanik, eta bertatik kanpo uzten dira "N-1" eta "N-638" errepideek gaur egun jadanik okupatzen dituzten "jabari publikoko" lurzoruak, bai eta hauen elementu funtzionalak ere -"zerbitzuguneak" eta bestelakoak, **16.140 m²-ko** azalera zenbatetsiarekin-, proposatutako plangintza-eremuaren batasunaren ondorioetarako eskusiboki Area barne hartzen direnak.

6. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

-**C.100/6 ZONA** (Enpresa Parkea)

(Azalera: **388.105 m²**)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"Zonaren eraikigarritasuna"^{o)}:

."Lurzati okupagarria":**0.25 m²(lo)/m²**

."Sabai eraikigarria":**0.35 m²(s)/m²**

-"Zonaren probetxamendua"^{o)}:

."Lurzati okupagarria":**97.027 m²(lo)**

."Sabai eraikigarria":**135.837 m²(s)**

-Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**III / II**

."Eraikuntza altuera":**8.50 m**

*Erabilera baldintza orokorrak: *"C.100" zonetako -teknologi maila handiko industriak eta enpresa bulego eta administrazio zerbitzuak- "erabilera bereizgarrietara", gutxienez ere esleitutako "eraikuntza probetxamenduaren" %75 destinatatu behar da.

-**E.110/6 ZONA** (Hiriarteko eta tokiko errepideak / SO)

(Azalera: **55.495 m²**)

(25.00 metroko errenkada -egun dauden bideen ardatzetik neurtua- hiriarteko errepideetan, eta 18.00 metrokoa toki-errepideetan)

^{o)}Irabazirik gabeko "zuzkidura erabileretara" destinatzen diren "eraikuntza probetxamenduak" kanpo; hauen definizioa "plan partzialera" eragortzen da.

6. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***LURZORU URBANIZAGARRIA.**

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***PLAN PARTZIALA / DESJABETZAPEN SISTEMA (Ekimena: Hondarribiko Udala.** Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespina "Lurzoruaren Legearen 132. artikuluan aurikusatako ondorioak izango ditu.

-"Hirigintza probetxamendua" esleitzeko baldintza orokorrak:

. "Banaketa-Area": ***II** ("6." HIAk "Banaketa-Area" independente bat osatzen du)

. "Azalera konputagarria": ***427.460 m²** ("II" Banaketa-Areatik kanpo uzten dira "N-1" eta "N-638" errepideek gaur egun jadanik okupatzen dituzten "jabari publikoko" lurzoruak, bai eta hauen elementu funtzionalak ere -"zerbitzuguneak" eta bestelakoak- 16.140 m²-ko azalerarekin)

. "Ereduzko probetxamendua": ***0.227 m²(lo)/m²**

-Programazio baldintzak: * "Plan partziala" **bost (5) urteko** gehienezko epearen barnean formulatu beharko da.

6. HIA (jarraipena)

-Finantzaketa baldintzak:

.Arearen desjabetzapen eta garapena: ***Hondarribiko Udala**. (Udalak bere garapena beste administrazio batzuekin edo agente pribatuekin hitzartzeko aukera edukiko du).

.Sarbide-sistema: *"Enpresa parkearen" instalazio eta eraikinen martxan jartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuak ezartzen dituen "N-I" errepidetik eta "Zubieta Hiribidetik" sarbideen hobekuntzari buruzko betebeharrak -Jaizubian "N-I" errepidearen gurutzagunearen balizko maila bikoitzeko "loturan" eraldatzea-.

Aipatutako obrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuak aldeztu aurretik burutu dituzten izan ezik, Arearen garapenaren "titularrak" finantzatzeko dituzten bere osotasunean.

."Eskualdeko kirol parkea": *Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Irun eta Hondarribiko Udalen artean hitzartu beharreko finantzaketa, hala badagokio.

6. HIA (jarraipena)

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-Eraikuntza lerroa:

."N-I" eta "N-638":**25.00 m** (Galtzadaren kanpoaldeko mugatik).

."Eskualde Ospitalera"

sartzeko errepidea:**18.00 m** (Galtzadaren kanpoaldeko mugatik).

."Errekastoak":**15.00 m** (Ubidearen ertzetik).

."Itsas bazterreko"

"zortasun-zona":**100.00 m** ("Jaizubiako" errekastoen ertzetik).

-Eraikuntza altuerari buruzko baldintzak Donostiako Aireportuaren "zortasun aeronautikoen" aplikazioaren bidez mugatuta daude.

-Zuzkidurak:

."f.1 espazio libreak" (gutxienezkoa):**85.000 m²**.

."Eskualdeko kirol parkea" (aukeran):**80.000 m²(l)**.

III.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE GLOBALA ("plangintza orokorraren" lerruna duten zehaztapan xehekatuak)

7. HIA. "MENDELU / GIBELETA"

(AZALERA: 70.709 m²)

(Hondarribiko udal mug.: 68.023 m² / Irungo udal mug.: 2.686 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Lehendik indarrean zegoen Hondarribiko Plan Orokorraren "12 eta 14" "poligonoen" eremuan dagoen egoitza garapenaren eta Arean barne hartzen den Irungo Plan Orokorraren "16" "poligonoaren" zatiaren konsolidazioa.

Ez da egoitza garapen berririk proposatzen eta, aipatutako eraikuntzak nahiko berriak direla kontuan hartuz, ez da berauen ordezkapen interbentziorik aurrikusten Arau Subsidiario hauen indarraldi formalean zehar.

-Aipatu den garapen plangintzak afektatzen duen eremutik kanpo "San Miguel Komentu Apostolikoaren" lurzatia kokaturik dago. Lurzati hau, era berean, "ekipamendu komunitariorako erabileretarako" destinoarekin konsolidatzen da, bertan eraikuntza garapen berriak baimentzen direlarik honako Arau Partikular honetan ezartzen diren baldintzetan.

-Interbentzio osagarri desberdinak burutu beharko dira, akatsen konponketa, urbanizazioaren eta zerbitzu azpiegituren -batez ere estolderia, gaur egun akats nabarmenak baititu- konponketa eta hobekuntza, Hondarribiko "12 Poligonoa" zenaren eremuaren barnean.

-Area hau Donostiako Aireportuaren "luzekako zortasun aeronautikoeak", eta "N-I" errepideko eta "Zubieta hiribideko" "eraikuntza lerroak" afektatzen dute.

7. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

-**A.300/7 ZONA** (Eraikuntza Irekiko Egoitza Zona) (Azalera: **63.882 m²**)
(Hondarribiko udal mug.: 62.269 m² / Irungo udal mug.: 1.613 m²)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"a.300 lurzatiak":

."Zonaren eraikigarritasun" zenbatetsia:**0.64 m²(s) / m²**

."Zonaren eraikuntza probetxamendu"

zenbatetsia:**40.961 m²(s)**

.Eraikuntza probetxamendua

erregulatzen duten baldintzak: **"Lurzati" bakoitzean egun dagoen "eraikuntza probetxamendua" kontsolidatzen da.**

.Eraikuntzaren forma erregulatzen

duten parametroak: **"Lurzati" bakoitzean egun dagoen eraikuntzaren parametroak kontsolidatzen dira.**

-"g.000 lurzatia" ("San Miguel
Ikastetxe Apostolikoa"):

.Eraikigarritasuna:**0.30 m²(s)/m²**

."Eraikuntza profila":**III/II**

-**E.110/7 ZONA** (Hiriarteko eta tokiko errepideak / SO) (Azalera: **6.827 m²**)
(Hondarribiko udal mug.: 5.754 m² / Irungo udal mug.: 1.073 m²)

2. GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA.**

-Plangintzaren garapen eta

exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENeko EXEKUZIOA.**

-Programazio baldintzak: ***Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespentik aurrera.**

-Finantzaketa baldintzak: ***Ez da izaera orokorreko inbertsio ekintzarik proposatzen.**

7. HIA (jarraipena)

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-Eraikuntza altuerari" buruzko baldintzak Donostiako Aireportuaren "zortasun aeronautikoen" aplikazioaren bidez mugatuta daude.

-Zubieta kalearen" -E.110/7" Toki Errepidea- "eraikuntza lerro" gisa kontsolidatzen da bertan dauden eraikuntzek definitzen dutena.

III.ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1.KALIFIKAZIO XEHEKATUA

"Zonakatze Xehekaturako" baldintzak "Arau Partikular" honen "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakora egokituko dira arauzko izaeraz.

-Antolamenduaren ezaugarriak:

*"Etxebizitza erabileraren" ezaugarriak
(Datu zenbatetsiak):

-Eraikuntza probetxamendua"
(Egungoa):**40.052 m²(s)**

-Etxebizitzak (kp.) (Egungoak):**342 etx.**

-Etxebizitza erabileraren" intentsitatea:**54.4 etx./ha**

*"Merkataritza erabilerak"
(Egungo "sabai azalera" zenbatetsia):**909 m²(s)**

*Zuzkidurak:

-"f.110/1 lorategiak" (TS)
(Jabari eta erabilera publikoak):**7.200 m²**

-Ekipamendu Komunitarioa":
"g.000/7 lurzatia"
(San Miguel Ikastetxe Apostolikoa
/ Titulartasun pribatua):

.Azalera:**14.060 m²**

."Eraikuntza probetxamendua":**4.218 m²(s)**

7. HIA (jarraipena)

2.ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

-a.300 lurzatietakoa "behe-oineko" lokaletan "garajeen" ezarpena baimentzen da.

-"San Miguel Ikastetxe Apostolikoaren" lurzatian "-g.000/7 lurzatia"- eraikuntza berria aldez aurretik "xehekapen azterlan" baten tramitazioaren baldintzapean egongo da.

3.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

-Areako estolderia, estolderi sare orokor berriari konektatu beharko zaio.

-Interbentzio osagarri desberdinak burutu beharko dira, akatsen konponketa, urbanizazioaren eta zerbitzu azpiegituren -batez ere estolderia, gaur egun akats nabarmenak baititu- konponketa eta hobekuntza, Hondarribiko "12 Poligonoa" zenaren eremuaren barnean.

4.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

-Exekuzio baldintza orokorrak: *Exekuzio asistematikoa".

-Exekuzio programa: *Ez da derrigorrezko epe jakinik finkatzen "San Miguel Ikastetxe Apostolikoaren" lurzatian "-g.000/7 lurzatia"- "eraikuntza probetxamendu" berrien exekuzioa burutzeko.

. "Eraikuntza probetxamendua": **18.445 m²(s)** (11.154 m²[s] "1.2" BOE erregimenpean)

. Etxebizitzak (kopurua): **182 etx.**

. "Etxebizitza erabileraren" intentsitatea: **70.0 etx./ha**

*"Merkataritza erabileraren" ezaugarriak: **1.128 m²(s)**

*Zuzkidurak:

- "Espazio libreak" (f.110):

. "Lorategiak": **4.406 m²**

. "Jolas Areak": **3.787 m²**

. Guztira: **8.193 m²**

. Standarda: **47.63 m²/etx.**

- "Ekipamendu komunitarioa"

"a.300 lurzatiak" (lokalak)

(Erabilera "zehaztu gabea"): **722 m²(s)**

- "Aparkamendua" / "garajea":

. "Aparkamendua" (Bide publikoak): **43 plz.**

. "Garajea": **344 plz.**

. Guztira: **387 plz.**

2. ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

"Itsas bazterra" babesteko "zortasun zona" erabili eta honen mugakideak diren eremuetan edozein interbentzio gauzaterakoan -egun dauden eraikuntzetan zein eraikuntza berrietan obra edo eraikuntzak exekutatzeko edo bertan erabilerak ezari ahal izateko-, indarrean dagoen Kosta Legean eta bere Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko da.

Horretarako, Arau Partikular honi erantsi zaizkion planoetan grafiatuta dauden aipatutako jabari publikoaren "mugabanaketa", "itsas bazterra" eta "babesteko zortasun zona" kontuan hartuko dira.

IV. PLANOAK

1. EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2. ZONAKATZE XEHEKATUA

29. HIA. "PUNTALA"

(AZALERA: 27.543 m²)

I.ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Egungo garapena kontsolidatu eta beronen garapenerako oinarri izan den "plangintza partzialaren" indarraldia iraurarazi nahi da -24. Poligonoaren A Sektorearen Plan Partziala, 84/1/11ko dataz behin-betiko onetsi zena-, koherentzia irizpideei jarraiki, "Puntaleko Jardin-Hiria" 30. Arearen mugetan "San Markoseko Parkea" barne hartzearen kaltetan izan gabe, aipatutako plangintzaren eremuak Area honetan barne hartzen duena alegia.

-"Antolamendu xehekatua" baldintzen definizioa, indarrean jarraitzen duen "plan partzialaren" dokumentura eragortzen da.

-Area hau "itsas-lehorreko jabari publikoak" afektatzen du "-Bidasoako bokalearen" "urbazterretik" hasi eta 15.00 metroko hondo batean-. Halaber, "urbazter" hori "babesteko zonak" ere afektatzen du area, 5.00 metroko hondo gehigarri batean "-urbazterretik" 20.00 m-, aipatutako aldean eta "Santa Engraziako Kanalaren" pareko aldean.

-Era berean, Area hau Donostiako Aireportuaren "zeharkako aire zortasunek" ere afektatzen dute.

II.HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1.KALIFIKAZIO GLOBALA

-A.300/29 ZONA (Eraikuntza Irekiko Egoitza Zona)

(Azalera: 27.543 m²)

Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"Zonaren eraikigarritasuna":**0.43 m²(s)**

-"Zonaren eraikuntza probetxamendua":**11.715 m²(s)**. Indarrean jarraitzen duen "plan partzialak" "lurzati eraikigarri" esleitzen dien "eraikuntza probetxamendua" arauzko izaeraz kontsolidatzen da.

-Eraikuntzaren forma erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**III / I**

."Eraikuntza altuera":**10.00 m**

29. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA**.

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENEKO EXEKUZIOA ("24. Poligonoaren A
Sektoreko Plan Partziala")**.

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko onespenetik" aurrera.

-Finantzaketa baldintzak: *Ez da izaera orokorreko inbertsio ekintzarik proposatzen.

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-"Itsas-lehorreko jabari publikoaren" "zortasun zona": **20.00 m**

-Donostiako Aireportuaren "zeharkako aire zortasunak" aplikatzeak mugatzen ditu "eraikuntza altueraren"
baldintzak.

-Indarrean dagoen Lurzoruaren Legearen 129 artikuluari loturiko "espazio libreen" "zonakatzea", indarrean
dirauen "plan partzalean" ezartzen dena, lerrun arautzaile horrekin kontsolidatzen da.

29. HIA (jarraipena)

III. ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA

-Antolamenduaren ezaugarriak:

*"Etxebizitza erabileraren" ezaugarriak:

. "Eraikuntza probetxamendua": **11.715 m²(s)**

. Etxebizitza antolatutak (egungoak): **104 etx.**

. "Etxebizitza erabileraren" intentsitatea: **37.8 etx./ha**

*"Merkataritza erabileraren" ezaugarriak:

"a.300 lurzatiak" ("behe-oineko" lokalak): **170 m²(s)**

*Zuzkidurak:

-Espazio libreak" ("f.110):

. "Lorategiak": **8.637 m²**

. "Jolas areak": **2.485 m²**

. "f.110" guztira: **11.122 m²**

. Standarda: **106.9 m²/etx.**

-Ekipamendu Komunitariorako"

Toki Sistema (g.000):

. "g.000/29 lurzatia"

("Eskolaurreko hezkuntza" ikastetxea): **1.459 m²(l)**

. "Ekipamendu Komunitariorako" lokalak

"a.300 lurzatieta"

("zehaztu gabeko" erabilera): **260 m²(s)**

2. ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

"Itas-lehorreko jabari publikoa" eta, bertatik kanpo, "itsas bazterra" babesteko "zortasun zona" erabili eta honen mugakideak diren eremuetan edozein interbentzio gauzatzerakoan -egun dauden eraikuntzetan zein eraikuntza berrietan obra edo eraikuntzak exekutatzeko edo bertan erabilerak ezarri ahal izateko-, indarrean dagoen Kosta Legean eta bere Erregelamenduan xedatutakoa bete behar da.

Horretarako, Arau Partikular honi erantsi zaizkion planoetan grafiatuta dauden aipatutako jabari publikoaren "mugabanaketa", "itsas bazterra" eta "babeesteko zortasun zona" kontuan hartuko dira.

29. HIA (jarraipena)

3.KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

* Exekuzio baldintza orokorrak: ***"Iharduketa asistematikoa"**.

* Exekuzio programa: *"g.000/29 lurzatiaren" eraikuntzarako ez da eperik ezartzen.

IV.PLANOAK

1.EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2.ZONAKATZE XEHEKATUA

30. HIA. "BRETXA AZPIA"

(AZALERA: 60.960 m²)

I. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Puntaleko Zabaldura" izeneko "jardin-hiriaren" (1914) lurzatiketan burututako egungo egoitza garapenaren kontsolidazioa.

Garapen horrek "Garapen Baxuko" eta "Eraikuntza Bakaneko" tipologia mistoari erantzuten dio, baina antzinako eraikuntza batzuk ere baditu arrantzarako "Lonja" zaharren inguruetan -hauek ere kontsolidatu egiten dira-; izan ere, eraikuntza hauek "Antzinako Egoitza Asentamendu" gisa kalifikatzen dira.

"Espazio libreak" ere kontsolidatu egiten dira -"Jabier Ugarte Lorategiak" eta "San Markos Parkea"-, bai eta "Bidasoa Hotela" eta adierazitako lurzatiketaren "etxadi" bat betetzen duen "Ama Guadalupekoa Ikastetxea" ere.

Ez dira garapen berriak aurriztuz, azpieraikitako lurzatiaren "eraikuntza probetxamenduen" gehikuntza txikiak izan ezik, beti ere ezarritako eraikuntza baldintzetan.

-Mendebaleko bidea" eraikitzerakoan "Sabin Arana Goiri kalearen" sekzioa aldatuko da, ibilgailuentzako errei bat ezabatuko da -hirigunetik irteteko bat- eta Areari dagokion aldean "bidegorri" bat antolatuz, Irun eta Hondarribiaren artean aurriztutako trazaduraren zati bat, "bidegorri" hau ondoren "Irun kaletik" abiatuko da "Bidasoa kalera" igaroz.

-Bidasoa kalea" soilik oinezkoentzako egokitu ahal izango da. Horretarako gaur egun aipatutako bide horretan dagoen aparkaleku zuzkidura ordezkatzeko aparkaleku antolamendu alternatiboak planteatu behar dira. Hauen artean "Jabier Ugarte Lorategiak" xede horretarako okupatzeko aukera biltzen da -beste alderdiak kontuan hartu gabe, aparkaleku zuzkiduraren guztizko saldoa eta oinezkoen erabilerarako "espazio libreen" zuzkidura askoz hobea da konponbide honetan egungo egoeran baino-.

-Proiektatutako "Irun / Hondarribia saneamendurako kolektore orokorra" eraikitzeak Area hau afektatuko du, Hegoaldetik Iparraldera "Sabin Arana Goiri kaletik", "Irun kaletik" eta "Bidasoa kaletik" igaroko baita.

-Halaber, Area hau "itsas-lehorreko jabari publikoak" afektatzen du -"Bidasoako bokalearen" "urbazterretik" hasi eta 15.00 metroko hondo batean-. Halaber, "urbazter" hori "babesteko zonak" ere afektatzen du area, 5.00 metroko hondo gehigarri batean -"urbazterretik" 20.00 m-.

30. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

-A.400/30 ZONA

(Garapen Baxuko Eraikuntzako Egoitza Zona)

(Azalera: **55.205 m²**)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"Zonaren probetxamendua" (zenbatetsia):

."Lurzati azalera":**29.243 m²(l)**

."Sabai azalera":

-"Etxebizitza erabilera":**18.460 m²(s)**

-Bestelako "erabilerak":**4.565 m²(s)**

-Guztira:**23.025 m²(s)**

-"Eraikuntza probetxamendua"
erregulatzeko baldintzak:

."a" eta "c" "lurzatiak":**0.55 m²(s)/m²(l)**. (Hala eta guztiz ere, eraikigarritasun hau gainditzen duten egungo eraikuntzak kontsolidatu egiten dira).

."g.000/30.1 lurzattia"

(Ama Guadalupekoa Ikastetxea):**0.70 m²(s)/m²(l)**

-Eraikuntzaren forma erregulatzeko
duten parametroak:

."Eraikuntza profila":**III / I**

."Eraikuntza altuera":**10.00 m**

."Erretiroak":

-"Bideen aurrealdean":**5.00 m**

-"Beste lurzatiekiko "mugetan":**3.00 m**

.Hala eta guztiz ere, parametro hauek betetzen ez dituzten edota ezarritako eraikuntza tipologiara egokitzen ez diren egungo eraikuntzak kontsolidatu egiten dira.

-E.120/30 ZONA (Hiri-bidea / SO)

(Azalera: **5.755 m²**)

30. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA**.

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENKO EXEKUZIOA**.

-Programazio baldintzak: *Exekuzioan Arau Subsidiarioen "behin-betiko onespenetik" aurrera.

-Finantzaketa baldintzak: *"Sabin Arana Goiri kalearen" berrantolaketa eta, horren ondorioz, "bidegorria" antolatzea, Hondarribiko Udalaren ekimenez eta berak finantzatuta burutuko dira.

*"Txingudiko Urak" burutuko du Irun / Hondarribia saneamendurako Kolektore Orokorren eraikuntza.

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-"Itsas-lehorreko jabari publikoaren" "zortasun zona": **20.00 m**

-Lerrun arautzaile horrekin kontsolidatzen da "f.110/30.1 Espazio Librearen" ("San Markoseko Parkea") zonakatzea eta "Ama Guadalupeko Ikastetxeko" lurzatiak "ikastetxe" gisa kalifikatzea "-g.000 lurzattia"- eta "Bidasoa Hotela" "hotel erabilerarako" lurzati gisa kalifikatzea "-c.300/30.1 lurzattia"-.

-Halaber, "Puntaleko Zabaldura" baino lehenagokoak diren eraikinak, hots, "Lonja Zaharraren" inguruetan daudenak -Villa Catalina-, kontsolidatu egiten dira eta "a.100 Antzinako Egoitza Asentamenduen Lurzati" gisa kalifikatzen dira.

30. HIA (jarraipena)

III.ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1.KALIFIKAZIO XEHEKATUA

- "Kalifikazio Xehekaturako" baldintzak, izaera arautzailez, honako "Arau Partikular" honetako "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakora egokituko dira.

-Antolamenduaren ezaugarriak:

* "Etxebizitza erabileraren" ezaugarriak

- "Lurzati azalera": **21.900 m²(l)**

- "Eraikuntza probetxamendua":

. "a.100 lurzatiak" (egungoa): **1.006 m²(s)**

. "a.400 lurzatiak":

- Egungoa: **15.758 m²(s)**

- Proiektatua: **2.702 m²(s)**

- Guztira (a.400): **18.460 m²(s)**

. Guztira: **19.446 m²(s)**

- Etxebizitzak (egungo kopurua):

. "a.100 lurzatiak": **7 etx.**

. "a.400 lurzatiak":

- Egungoak: **69 etx.**

- Proiektatuak: **25 etx.**

- Guztira (a.400): **94 etx.**

. Guztira: **101 etx.**

* "Hirugarren sektoreko erabileren" ezaugarriak:

- "c.300/30 lurzatia" ("Bidasoia Hotela"):

. Azalera: **3.831 m² (l)**

. "Eraikuntza probetxamendua":

- Egungoa: **1.263 m²(s)**

- Guztira baimendua: **2.107 m²(s)**

* Zuzkidurak:

- "Espazio Libreak":

. "San Markos Parkea"

(f.110/30.1): **8.450 m²**

. "Jabier Ugarte Lorategiak"

(f.110/30.2): **3.585 m²**

. Guztira: **12.035 m²**

30. HIA (jarraipena)

- Ikastetxeak:
- ."Ama Guadalupeko Ikastetxea"
(g.000/30.1):
- Azalera:**3.512 m²(l)**
- Sabai azalera:**2.458 m²(s)**
- "Garaje" zuzkidura:**220 plz.**
- Titulartasuna: * **"Pribatua"**

2.ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

"Itsas-lehorreko jabari publikoa" eta, bertatik kanpo, "itsas bazterra" babesteko "zortasun zona" erabili eta honen mugakideak diren eremuetan edozein interbentzio gauzaterakoan -egun dauden eraikuntzetan zein eraikuntza berrietan obra edo eraikuntzak exekutatzeko edo bertan erabilerak ezarri ahal izateko-, indarrean dagoen Kosta Legean eta bere Erregelamenduan xedatutakoa bete behar da.

Horretarako, Arau Partikular honi erantsi zaizkion planoetan grafiatuta dauden aipatutako jabari publikoaren "mugabanaketa", "itsas bazterra" eta "babezteko zortasun zona" kontuan hartuko dira.

3.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

-Sabin Arana Goiri kalearen" sekzioa aldatzea eta Irun eta Hondarribia artean aurrirakusten den "bidegorria" eraikitzea.

-"Bidasoa kalea" soilik oinezkoentzat egokitzeko aukera eta "Jabier Ugarte Lorategien" berrurbanizazioa.

-Irun / Hondarribia saneamendurako kolektore orokorraren" eraikuntza.

4.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZA JURIDIKOAK

*Exekuziorako baldintza orokorrak: ***"Iharduketa asistematikoa"**.

*Lurzatiketa baldintzak: *Egungo lurzatiketa kontsolidatzen da; ez da lurzatiaren "agregazio" edota "azpizatiketa" interbentziorik baimenduko.

*Urbanizazio obretarako proiektuak
formulatzeko baldintzak: *Proiektatutako obra guztiak "obra arruntetarako proiektuen" bitartez formulatuko dira.

30. HIA (jarraipena)

*Eraikin eta elementu "katalogatuak": **D. Eraikuntza Publikoa**

D.8 "Villa Catalina" (Antzinako arrain lonjaren arrastoak). Lapurdi kalea.

E. Elementu Bereziak

E.7 San Markos gurutzea (Jatorriz "28. Lonja" Arean zuen kokapenetik baztertua, bertara itzultzea aurrakusten da).

K. Urbanizazio eta Lorategi Multzoak

K.2 "San Markoseko Itxia" parkea.

J. Egoitza Eraikuntza Garaikidea

J.3 "Ur-Gain etxea" (Razionalismoa. Aizpurua arkitektoa).

*Exekuzio programan: * Ez da ekimen publikoko interbentzioen exekuziorako eperik ezartzen.

Partikularrei esleitzen zaizkien hirigintza eginbeharrak betetzeko epeei dagokienez, Hiri-lurzorurako indarrean dagoen hirigintza legeriak ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

IV. PLANOAK

1. EGUNGO EGOERA / MUGAKETA

2. ZONAKATZE XEHEKATUA

3. ERAIKUNTZARAKO XEHEKAPEN BALDINTZAK

31. HIA. "DAMARRI"

(AZALERA: 19.448 m²)

I. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

-Gaur egungo egoitza garapenaren kontsolidazioa -honen parte gisa burututako espazio librea barne- eta erabilgarri dauden lur betegabeak destino berarekin okupatzea. Hauei esleitzen zaizkien probetxamendu baldintzak 1972ko "Hondarribiko Plan Orokorren" garapen gisa onetsitako "plan partzialak" -"25. Poligonoaren Plan Partziala"- definitzen dituzten probetxamendu baldintzen antzekoak dira. Aipatutako okupazioak SEFT enpresaren -Hondarribia/Donostia Autobusak- kotxerak desagertzea eragingo du, bai eta aipatutako "Plan Partzialean" jada aurrirakuten zen "Sarasola Enea" etxea ere.

-Antolamendu berria proposatutako bide trazadurara egokituko da, trazadura honek "Mendebaleko Bidea" "Harresilanda kalearekin" eta "Donosti kalearekin" elkartuko ditu, ibilgailuz "hirigunera" sartzeko aukera berrietako bat konfiguraturaz. Sarbide gurutzagunea Area barruan kokatuko den eta hirirako sarbidea gauzatu duen glorietan bitartez konponduko da, bai eta "Mendebaleko Bideko" bidegurutzetan semaforoak jarritz ere, azken hauek aipatutako bidea eta "Kosta kalea" elkartzeak dituen arazoak arintzen dituzte.

Burutu beharreko obrak, lehen etapa batean Arearen urbanizazio kargen zati gisa finantzatu dira. Bigarrena, beharrezko lurzorua ekarpena burutuko duen "33. Area Presaren" urbanizazioari dagokio.

-Eraikuntza berria perimetroko bidetzan oinarrituta kokatuko da, "Harresilanda kaleari" dagokion bideunea izan ezik, gune historikoko harresiaren ingurunean eragin bisuala gutxitzeko xedez, bideune hau ahal den neurrian ezabatu egingo baita.

-Arearako hertsiki beharrezkoa dena baino gutxienezko 50 "garaje" plaza gehiagoko zuzkidura antolatuko da, ingurune hurbilean gaur egun hautematen den defizita murriztu ahal izateko.

-Arean aurkitzen diren zuhaitz sendoak bizirik gorde behar dira, eta zehazki, burututako hiri-garapenaren parte gisa hartutako espazio librean aurkitzen dena eta "Sarasola Enea" alboan, "Minasoroeta kalearen" parean aurkitzen den magnolia.

-Proiektatutako garapen berriko zati bezala, gaur egun arras narriatuta dagoen "Damarri" multzoaren urbanizazioaren konponketa burutu beharreko obraren artean barne hartuko da.

-Proiektatutako egoitza garapen berriak bertako populazioarentzat destinatutako "babes publikoko" etxebizitzarako udal programan bilduko da, beraz, beronen exekuzioa Hondarribiko Udalaren ekimenez burututako "desjabetzpen" sistemaren bitartez gauzatu delarik. Kontsolidatzen diren eraikuntzak eta honen garapenerako emandako jabari publikoko lurzorua, desjabetzpen interbentzioaz salbuetsiko dira.

31. HIA (jarraipena)

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

1. KALIFIKAZIO GLOBALA

-**A.300/31 ZONA** (Eraikuntza Irekiko Egoitza Zonak)

(Azalera: **16.458 m²**)

*Eraikuntza baldintza partikularrak:

-"Eraikuntza probetxamendurako"
baldintzak:

."Zonaren eraikigarritasuna":**0.80 m²(s)/m²**

."Zonaren eraikuntza
probetxamendua":**13.166 m²(s)**

.Eraikuntza kontsolidatuei
esleitutako "eraikuntza
probetxamendua":**5.335 m²(s)**

.Garapen berriko "eraikuntza
probetxamendua":**7.831 m²(s)**

-Eraikuntza erregulatzen duten parametroak:

."Eraikuntza profila":

-Eraikuntza kontsolidatuak:**V / -**

-Eraikuntza proiektatuak:**IV / II**

."Eraikuntzaren altuera"
(Eraikuntza proiektatuak):**13.50 m**

*Erabilera baldintza partikularrak:

-Etxebizitzen sustapen erregimena:**"Babes publikoa"** gehienezko batezbesteko "koefizientea" BOE 1.4/1.54ren baliokidea.

-"Etxebizitza erabileraren"
gehienezko intentsitatea:**80.0 etx./ha** (132 etx.)

-"Merkataritza erabileretara" destina
daitekeen gehienezko "sabai azalera"
("Behe-oineko" lokalak):**1.300 m²(s)**

-"Garaje" zuzkidura (gutx./gehi.):**1.5/2.0 plz./etx.**

-**E.120/31 ZONA** (Hiri-bidea / SO)

(Azalera: **2.990 m²**)

31. HIA (jarraipena)

2.GARAPEN ETA EXEKUZIORAKO ERREGIMEN JURIDIKOA

-Lurzoruaren sailkapena: ***HIRI-LURZORUA**.

-Plangintzaren garapen eta
exekuziorako erregimena: ***ARAU SUBSIDIARIOEN ZUZENEKO EXEKUZIOA / DESJABETZAPEN
SISTEMA (Ekimena: Hondarribiko
Udala).**

*"Xehekapen azterlan" bat tramitatu behar da derrigorrez. Honako "Arau Partikular" honetan proposatzen den
Zonakatze Xehekatua aldatu nahi izanez
gero, BEPB bat formulatu beharko da.

-Programazio baldintzak: ***Desjabetzapen tramiteari hemezortzi (18) hilabeteko** gehienezko epean eman
beharko zaio hasiera; **garapen
plangintzak bi (2) urteko** gehienezko
epean eman beharko dio hasiera
tramitazioari, eta eraikuntzaren
osotasunaren **exekuzioari ekingo zaio bi
(2) urteko** gehienezko epean, "garapen
plangintzaren" espedientearen
"behin-betiko onespentik" hasita.

-Finantzaketa baldintzak: *"31.1." EU exekuzio unitatearen desjabetzapen interbentzioaren finantzaketa:
Hondarribiko Udala. (Exekuzio
unitateak lurzoria eman beharko du eta
bidetzaren exekuzioa "sistema orokor"
afektatu gisa finantzatu beharko du)

31. HIA (jarraipena)

3.PLANGINTZA OROKORRAREN LERRUN ETA LOTESPEN ARAUTZAILEA DUTEN ANTOLAMENDU XEHEKATURAKO ZEHAZTAPENAK

-Harresilanda kalerako" fronte librean "altuerako" eraikuntza baztertzea.

-Hirigintza kudeaketarako sistema":***DESJABETZAPENA** (Ekimena: Hondarribiko Udala)²³. Arau Subsidiarioen "behin-betiko" onespenak" Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 132. artikuluan aurrikusitako ondorioak izango ditu.

-Gutxienezko zuzkidurak:

.f.1 Espazio Libreak":**40 m²/etx.** (15 m²/etx. kopururaino "erabilera publikorako zortasunera" lotu daitezkeen antzeko erabilera izan dezaketean azaleraz ordezkari daitezke).

.Ekipamendu Komunitarioa":**3.0 m²(s)/etx.** (Egoitza eraikuntzen "behe-oinetan" antolatu ahal izango dira).

III.ANTOLAMENDU XEHEKATUA

1.KALIFIKAZIO XEHEKATUA

-Kalifikazio Xehekaturako" baldintzak, izaera arautzailez, honako "Arau Partikular" honetako "2. Zonakatze Xehekatua" planoan ezarritakora egokituko dira.

-Antolamenduaren ezaugarriak:

*"Etxebizitza erabileraren" ezaugarriak:

-"Etxebizitza erabilerarako" eraikuntza probetxamendua:

.Egunoa:**4.665 m²(s)**

.Proiektatua:**6.591 m²(s)**

.Guztira:**11.976 m²(s)**

²³Hondarribiko Udala Areako lur guztien titularra da gaur egun, SEFT enpresaren jabetzakoa den finkarena izan ezik.

31. HIA (jarraipena)

-Etxebizitza (kp.):

.Egungoak:**60 etx.**

."Antolamenduz kanpo":**6 etx.**

.Proiektatuak:**78 etx.**

.Guztira:**132 etx.**

*"Merkataritza erabileraren" ezaugarriak
("Eraikuntza probetxamendua"):

.Egungoa:**670 m²(s)**

.Proiektatua:**1.300 m²(s)**

.Guztira:**1.970 m²(s)**

*Zuzkidurak:

-"Espazio libreak":

.Egungoak:**1.487 m²**

.Proiektatuak:**889 m²** (Gutx. 18.0 m²/etx.)

-"Ekipamendu komunitarioa":

(Gutxienezko "sabai azalera"):**450 m²(s)**

2.ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA PARTIKULARRAK

-4. Eraikuntza, jabari eta erabilerarako xehekapen baldintzak" planoan ezarritako baldintzak aplikagarriak izango dira..

-Ez da "garajeak" "behe-oinean" antolatzea baimentzen.

3.HIRI-ZERBITZUEN URBANIZAZIO ETA AZPIEGITURAK

"31.1." EU exekuzio unitatearen urbanizazio integrala.

4.HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZAK

*Exekuziorako baldintza orokorrak: *"Exekuzio unitate" bat mugatzen da, **"31.1." EU**, honako "Arau Partikular" honetako "4. Eraikuntza, jabari eta erabilerarako xehekapen baldintzak" planoan mugatua, **"desjabetzapean"** bitartez garatzeko (Ekimena: Hondarribiko Udala), aurikusitako garapen berriaren exekuziorako.

31. HIA (jarraipena)

Eremu horretaz kanpo, berrurbanizazio interbentzioak edota kontsolidatzen diren eraikuntzetan burutu beharreko behin-behineko eraikuntza interbentzioak "iharduera asistematikotzat" hartuko dira.

*"31.1." EU exekuzio unitatearen

"batezbesteko probetxamendua": $1.279 \text{ m}^2(\text{s}) [a.300(\text{BPE } 1.4)]/\text{m}^2$ ²⁰

*"Urbanizazio obretarako proiektuak"

formulatzeko baldintzak:

"33.1." EUko urbanizazioa: "Urbanizazio proiektua" (Ekimena: Hondarribiko Udala).

*"Antolamenduz kanpoko" eraikuntzak: "Arau Partikular" honetako "4. Eraikuntza, jabari eta erabilerarako xehekapen baldintzak" planoan adierazitakoak.

*Exekuzio programa: "Partikularrek hirigintza eginbeharrak betetzeko epeei dagokienez, indarrean dagoen hirigintza legerian ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

IV. PLANOAK

1. EGUNGO EGOERA

2. ZONAKATZE XEHEKATUA

3. ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERARAKO XEHEKAPEN BALDINTZAK

4. HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIORAKO BALDINTZAK

²⁰ "31.1." EU exekuzio unitatearen azalera: 9.882 m²

"BOE 1.4ko" probetxamendua (Pond. koef.: "1.0"): 6.531 m²(s) BOE "1.4"

"Merkataritza-lokaletako" probetxamendua (1.300 m²(s); pond. koef.: "2.0"): 2.600 m²(s) BOE "1.4"

"Garaje" probetxamendua (117 plz. x 30.00 m. m²(s); pond. koef.: "1.0"): 3.510 m²(s) BOE "1.4"

"31.1." EU exekuzio unitateko guztizko probetxamendua: 11.939 m²(s) BOE "1.4"

32. HIA. "ALDE ZAHARRA"

(AZALERA: 122.596 m²)

I. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURUAK

A) "ALDE ZAHARREKO" "HIRI-FABRIKA" GAINEKO INTERBENTZIORAKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK

*Lehentasuezko helburutzat erdi aroko jatorria duen **"burgu harresidunaren" zaintza eta birgaikuntza** hartzen dira; honen espazio eta eraikuntza morfologiaren oinarriko elementuak -bai eta balio "arkeologikoa" izan dezaketen beste batzuek ere- euren osotasunean gordetzea; eta, euren balio historiko, kultural edota arkitektonikoa hala bidezkozen badu, hirigintza eta eraikuntza elementu guzti horien artapena.

Helburu hau bi alderditan zehaztu beharko da: Batetik, **oinarriko "obra publikoaren" elementuen berreskurapena eta birgaikuntza** (elementu hauek antzinako "harresiaren" -abandonatua eta itxia, herria ezin da bertan sartu, ez eta honekin gozatu ere, zakarrez beterik eta zati batean pribatizatua- harresi itxieraren arrastoak -oraindik ere garrantzi handikoak- eta hirigintza obra -zerbitzuen berrikuntza, birzolaketa eta behar funtzional berrietara egokitzeko interbentzio sakon samar baten xede izan behar du-). Bestetik, **"eraikuntza-fabrikaren" birgaikuntza, XIX. Mendearen aurrekoak diren eraikuntzetara zuzendua** batik bat.

*Laburbilduz honakoak dira **funtsuzko "eraikuntza" ekintzak**:

-**Gaur egun dauden jatorrizko eraikuntzen birgaikuntza**, espreski "antolamenduz kanpokotzat" hartutako eraikuntza urriak izan ezik.

Eraikuntza horiek, izaera orokorrez "a.100 lurzatiarentzat" ezartzen den bezala, egungo bolumentria eta probetxamenduarekin kontsolidatzen dira, ez da hauen hedapena baimentzen, hala espreski ezartzen den kasuetan izan ezik.

Bere kanpoko tratamenduaren aldaketa bakarra bao "txapitulatuak" estalkian irekitzea eta egungo balkoiak ixten "begiratokiak" edota "galeriak" antolatzea izango da, eskusiboki, baldin eta eraikuntza berrirako, izaera orokorrez, ezartzen diren "sestra gaineko eraikuntza profilerako" baldintzen azpitik geratzen badira. Aipatutako elementuak honako Arau hauetan ezartzen diren trataera eta diseinu baldintzetara egokitu beharko dira, eta, eraikinaren berriazko ezaugarrien arabera Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak erabaki beharreko zuhurtzarako irizpidearen baldintzapean izango dira.

32. HIA (jarraipena)

-Gaur egungo **lurzati huts, azpieraikiak, edota aurri egoeran dauden eraikinez okupatuak.**

Aipatutako okupazioa trazaduren eta eraikuntzaren oinarriko morfologiaren zaintza helburuetara eta aurretik proposatutako hiri-espazioaren konfiguraziora baldintzatuko da; bai eta "espazio libreen" eta "aparkalekuen" zuzkidura hobetzeko beharizanera; Manzano Monís arkitektoak 1960/1970 hamarkadan formulatu zuen "antolamendu planak" proposatzen dituen fatxada arteko tartearen baldintzak berraztertzeraz -gaurdaino eraikuntza prozesu horretarako oinarri izan den plan honek gaur egungo egoerarako batere egokiak ez diren "pribatutasun" eta eguzkitze baldintzak adierazten ditu-.

Zentzu horretan, eta irizpide orokor gisa, **fatxada artean gutxienezko separazioa 8.00 metrokoa** izango da, kasu berezi batzuetan murriztuko dena, "lurzati" baldintza espezifikoan araberaz.

"Eraikuntza profilari" dagokionez, lehendik aipatutako "planean" aurrikusitakoa mantentzen da, hau da, **lau (4) "sestra gaineko oin"** eta "estalkipeko" oin bizigarria -kasu honetan bao "txapitulaturik" gabe-.

"Jabier Ugarte kalearen" hasierako tarteunearen bi aldeetara, lehen "Madalen Kuboak" betetzen zuen espazioa **-32.1. BBI-**, espreski mugatzen den "Barne erreformarako eremuaren" kasuan, hala eta guztiz ere, "portua"ko eraikuntzen trataerarekin homogeno izateko, "baoen" ezarpena baimentzen da.

Eraikuntzarako berariazko "estilo" baldintzak ezartzen ez badira ere, kasu orotan, egungo eraikuntzen birgaikuntzak kanpo trataera gorde behar du, eta bereziki jatorrizko "eraikuntza-fabrikako" elementu eraikitzaileak, hala nola, harri trinkoa edota zur tailatua -elementu erantsiak, kalitate estetiko txikiko imitazioak, nabarmenki bat ez datozen egindura edota itxurako materialak izan ezik-. Eraikuntza berriek, halaber, Arau hauetan izaera orokorrean "a.100. Antzinako Egoitza Asentamenduetako" lurzatiarako ezarritako "tratamendu estetikoari" buruzko ordenantzak bete beharko dituzte -dokumentu honen 3.2.6.9 artikulua-, bertan konposizio orokorrerako eta "fatxada" eta "estalkietarako" materialen trataerarako zenbait ildo definitzen ditu. Baldintza hauek, hala badagokio, aurrikusita dagoen "plan berezian" aldatu ahal izango dira.

"Orubeen" neurri eta ezaugarriek ahalbidetzen duten eraikuntza berriko kasu guztietan, garajera destinatutako bi "soto" "oin" ezartzea baimentzen da, Arean zuzkidura honek beharizan handiak baitaizka.

32. HIA (jarraipena)

-"Karlos V.aren Gazteluak" okupatzen duen **"El Emperador Paradore Nazionalaren" instalazioen birgaikuntza eta zabalkuntza**, behin-betiko 1992ko azaroaren 17an onetsi zen "Karlos V.aren Gazteluaren eta inguruen Plan Bereziaren" aurrikuspenei jarraiki, plan honen edukia proiektu honetan barne hartzen da.

Interbentzio honek, Gazteluaren birgaikuntzari dagokionez burututa dagoenak, bigarren fase batean "Villa Josefina" botatzea aurrikusten du, "Arma Plaza" Txingudiko estuarioaren paisaia ederrerantz irekiz -plaza "Jabier Ugarte Pasealekuraino" zabaltzen da eta beronen erremate gisa aipatutako eraikinaren azpialdea okupatzen duen eta mantendu eta birgaitzea proposatzen deneko "bolborategiaren" gainean "begiratoki" bat aurrikusita dago ere-, eta era berean "ostalaritza erabilerara" destinatutako lokalak eraikitzea barne harturik dago -"paradoreko" instalazioen zati gisa edo independenteki- bai eta "paradorerako" eta zonako egoiliarrentzako ia 100 garaje plaza eraikitzea ere, aurrikusita dagoen Plazaren zabalkuntzaren zorupean.

-"Juan de Laborda kalea", "San Nikolas kalea", "Denda kalea" eta "Harategi kaleak" -"Olazabal Parkea"- definitutako etxadian **Kultur Etxea eraikitzea** -"ekintza aretoa" eta beste zenbait erabilera-.

Bertan "erabilera pribatuko" eta era berean pribatua izan daitekeen titulartasuneko "aparkalekuen" aurrikuspen posiblea baimenduko da, bai eta bertako egoitza-eraikuntzak bere horretan uztea ere.

Bere "antolamendu xehekatua" "plan berezira" eragorriko da edo, bestela, eremu horretarako BEPB espezifiko batera, zeinek, ezarritako antolamendu-helburuen arabera -eta Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuek gai honi buruz ezarritako irizpideei jarraiki- eremu horretan zaindu beharreko interes historiko eta artistikoko elementuak -adibidez, "Olazabal Etxea", "San Nikolas kaleko" 23 zk. etxea, zuhaitzak, edo beste zenbait- garatu beharreko "eraikuntza probetxamenduak" eta eraikuntzen kokaera eta erabilera erregimena zehaztuko dituzten.

-Egoiliarrentzako "San Gabriel Egoitza" huzatiaren eraiki gabeko aldearen zorupean eta "Jeneral Leiba kalean" **"garajeak" eraikitzea**, zeinaren behin-betiko definizioa "plan berezira" eragortzen den, "plaza" kopuruaren errendimenduaren eta kasu bakoitzean egon daitezkeen kostuen arabera bere bideragarritasuna xehetasunez aztertu beharko duelarik.

32. HIA (jarraipena)

*Halaber, honakoak dira proposatzen diren **"urbanizazio" ekintza muntazkoenak**:

-**"Arma Plazaren"** aipatutako zabalkuntza, **"Iparraldeko kalearen"** berrurbanizazioa barne hartzen duelarik.

-**"Jabier Ugarte Pasealekuaren"** berrurbanizazioa bukatzea "Juan Laborda kaleraino", zeina, ere berean, "Karlos V.aren Gazteluaren Plan Berezia" biltzen zen.

-**"Harategi kalea" eta "Uria Harresia" kaleak elkartuko dituen kale berri bat irekitzea**, eta urbanizazio osagarria, "Xehekapen Azterlana Harategi kalean" aurrikusiak ⁽²⁹⁾.

-**Harresiaren gainerako ingurunea "pasealeku" eta "espazio libre publiko" gisa birgaitzea eta urbanizatzea.**

-Eraikuntzak -Kultur Etxea eta garajeak- afektatzen ez duen **"Olazabal Parkeko" zatia "espazio libre" gisa urbanizatzea.**

-**"Jeneral Leiba kalea" eta "Uria Harresia" urbanizatzea**, proposatutako garaje eraikuntzarako interbentzioaren zati gisa, era berean tarte horretan "harresiaren" gainean proposatutako interbentzioan barne hartuta.

-**"Jabier Ugarte kalea" eta "Juan de Laborda kalean" espaloiak zabaltzea**, "Alde Zaharrera" oinez heltzeko sarbiderik nagusia baitira, hauen aurrealdean aurrikusten diren eraikuntza interbentzioen obra osagarri gisa.

-**Urbanizazioaren birgaikuntza orokorra**, kaleen -ezartzen diren ibilgailuen trafikoa murrizteko helburuen arabera "zintarriak" ezabatuz- eta egoera txarrean aurkitzen diren "espazio libreen" birzolaketa eta hiri-zerbitzuen sarearen berrikuntza barne hartuz.

Azken alderdi honetan "gas naturala" banatzeko sare bat barne hartzen da -aztertzen ari da-.

²⁹Gaur egun exekutatzen ari da.

32. HIA (jarraipena)

B)HIRI-FUNTZIONALITATEAREN HOBEKUNTZA HELBURUAK

* Alderdi honetan ondoko **helburu nagusiak** ezartzen dira:

-**Alde Zaharraren** kalitatea areagotzea, bertako populazio egonkorrentzako "egoitza zona" gisa.

-**Hurbilerraztasuna** hobetzea, bai eta kanpoko bisitariak bertaratzeko aukera hobetzea ere.

-**Hiri-iharduera suspertzea**, batez ere merkataritza erabilerei -ostalaritza eta merkataritza turistikoa ("Bidasoa 93 Plana") eta kultur iharduerei dagokienez, neurri handi batean aurreko bi helburuak gauzatzearen menpe egongo dena.

***"Alde Zaharreko" egoitza kalitatearen hobekuntza**, era berean, ondoko alderdietan zehaztu beharko da:

-**Arestian aipatutako etxebizitza multzoaren beraren birgaikuntza**. Etxebizitza hauek, mende honetako 60ko hamarkadako erdialdetik aurrera "Manzano-Monisen Planaren" pean garatutako eraikuntzak izan ezik, muntazko portzentaia batean eraikuntza narriadura egoeran eta zerbitzu instalazio zaharkituak dituzte, eta baliabide gutxiko populazioa bizi da bertan, premiazkoa den berrikuntza prozesuari ekiteko ahalmen mugatua duena alegia.

-**Etxebizitza berriak eraikitzea** -"Alde Zaharreko" goialdean 12.000 m²-ren (s) eraikuntza ahalbidetzen da, 150 bat etxebizitzaren baliokide, "Jabier Ugarte kalearen" hasieran aurrikusten den "barne erreformaren" eremua kontuan hartu gabe- etxebizitza berriak eraikitzeak hiri-komunitate identifikagarri berri bat konfiguratzeko ahalbidetuko duena.

Horrekin, "Alde Zaharraren" narriadura fisiko eta funtzionalak -"Portu auzoa" hirigune berria bilakatzearen ondoriozko merkataritza zuzkiduraren galera- eta populazio murriztapenak mende honetan zehar arian-arian eragin zuen nortasun-galtze prozesua gaingitu nahi da.

32. HIA (jarraipena)

-**Urbanizazioaren eta zerbitzuen berrikuntza.** "Gas naturalaren" ezarpena hobekuntza handiko elementua izango litzateke, "Alde Zaharreko" eraikuntza-morfologiak berak beste energia iturriak hedatzeko -energia elektrikoa izan ezik- zailtasun handiak jartzen baititu.

Aipatutako berrikuntzak "Alde Zaharreko" kaleen malda handiek sortzen dituzten "hirigintza oztupoak" eta egoera txarrean aurkitzen diren harrizko zoladurak murriztea barnebildu beharko du.

-Etxebizitzetatik hurbil diren "erabilera publikoko" **egonlekuen eta haurrak jolasteko espazioen zuzkidura hobetzea** -harresiaren periferia hurbilean mota honetako espazio zuzkidura handiak erabilera maila urria azaltzen du, batik bat, "Alde Zaharrarekiko" tartea eta desnibelak handiak direlako-.

Zentzu horretan, lehenespenezko arazotzat egungo espazioak aparkaturik dauden kotxez libratzea hartzen da -"Arma plaza", "Gipuzkoa plaza" eta, oro har, kaleen barne-sare guztia-.

Mota honetako espazio berriak sortzeko interbentzio nagusi gisa "Arma Plazaren" hedapena, lehendik aipatzen den proiektuan aurrikusten dena, eta "Olazabal" etxearen hegoaldeko lorategiak -eraikuntzak okupatzen ez duen aldea- zein harresiak -"San Felipe babeslekuak" euren osotasunean, "Erregina", "San Nikolas" eta "Santiagokoak"- erabilera honetara destinatzea.

-**Bertako populazio egoiliarrentzako "aparkaleku" eta "garaje" espazioen zuzkidura.** Helburu hau, izan ere, ez dator bat arestian aipatu dugun espazioak aparkatutako autoez libratzeko helburuarekin. Beraz arazo hau ez da konponerraza izango erabilera hauetarako espazio alternatibo urri baitago eta hauen eragina beti negatiboa izango baita "Alde Zaharra" bezalako Area batean, non ingurune kalitate handia lortu nahi den eta bertako morfologia propioa autoa erabiltzeko hain desegokia den.

Proposatzen den interbentzio ildoak egoitza eraikuntza berrietan eta beste espazioetan -"Arma Plaza" eta "San Gabriel Egoitzaren" lorategien hedapenean eta "Jeneral Leiba kaleko" zorupean- ekimen publiko zein udal ekimeneko garajeak egoiliarrentzat antolatzean oinarritzen da, guztira 300 plaza berri sortuz; eta, "Alde Zaharraren" barruan egoiliarren aparkamendua lehenetsiko duen eta kanpoko bisitariena murriztuko duen aparkalekuaren kudeaketarako politika hartzean.

32. HIA (jarraipena)

***Kanpoko bisitariarentzat hurbilerraztasuna hobetzea** eta hauek "Alde Zaharraren" kultura eta giro balioak ezagutzeko aukerak, alderdi askotan arestian aipatu den egoitza kalitatearen birgaikuntzarekin eta hobekuntzarekin lotzen dira.

Nolanahi ere, "Alde Zaharraren" bide-sareak dituen mugak kontuan hartuta eta egoiliar egonkorrentzako aparkalekuak antolatzekeo lehentasun helburua eta, arestian esan bezala, egun "hirigunearen" barnean erabiltzen diren plazak nabarmenki murriztea ekarriko duten ingurune hobekuntza helburuak kontuan hartuta, interbentzioak **oinezkoen hurbilerraztasuna** hobetzean zentratu beharko dira, hala **ikuspegi hertsiki materialetik** -sarbide berriak sortzea, zolaketa, oinezkoarentzako gatazkak eta elementu saihekorrak ezabatzea- nola **"irakurgarritasun" eta irudi ikuspegitik** -argiteria, seinalizazioa, "behe-oinean" merkataritza-lokalak izango dituzten eraikin berrien bitartez "Jabier Ugarte kalerako" sarbideari eustea; bai eta **"Alde Zaharraren" inguru hurbiletan behar adina "aparkaleku" plaza zuzkituz**- seinalizazio kanpaina egoki bat eginez-.

-**Oinezkoen hurbilerraztasuna hobetzeko** interbentzio gisa honakoak biltzen dira: "Jabier Ugarte" eta "Juan de Laborda" kaleetako espaloiak zabaltzea; "Jabier Ugarte Pasealekuaren" zolaketa eta bertatik "Arma Plazara" heltzeko sarbide eskailerak zabaltzea; oinezkoek "Alde Zaharrera" sartzeko bideetako puntu berezi batzuetan kokatutako aparkalekuak ezabatzea, hala nola, "Jabier Ugarte pasealekurako" sarbidea "Jabier Ugarte kaletik" edota "Santa Maria Aterako" sarbidea "Zumarditik" edo, azkenik, sarbide puntu berriak irekitzea.

Hauen artean dago egun itxita dagoen "San Nikolas Atea", zeinak, gainera, "revellinetik" pasabide bide bat eraikitzea eskatuko duen, eta era berean, eskailera batzuek medio "Harresilanda kalera" lotuko den; edota "harresiaren goialderako sarbide berri bat "San Kristobal Plazatik", aurretik "Madalen Kuboak" okupatzen zuen espazioan mugatzen den "barne erreformaren eremuan" erabakitzekeo" ⁽²⁶⁾ eta, "Erreginaren babeslekitik" "Harresilanda kalerako" sarbide zuzena, "Damarritik" "Alde Zaharrerako" sarbide zuzena ahalbidetuz.

-**"Alde Zaharreko" periferia hurbilean "aparkalekuen" zuzkidura** "aire zabaleko" aparkaleku plazez osatu beharko da, zorupeko "garajeak" burutzea finantza-ikuspegitik erabat ezinezkoa gertatzen baita. Aparkaleku hauek gauzatzeko Areak "Zumardia", "Zezen Plaza" eta "Bretxa Azpia" izan litezke.

⁽²⁶⁾ Ignacio Galarraga arkitekto jaunak "Hondarribiko Alde Zaharraren Birgaikuntzarako Plan Bereziaren" "Aurrelaburpenean" formulatutako proposamena.

32. HIA (jarraipena)

***Hiri iharduera** kultur eta merkataritza astialdirako leku gisa **suspertzea**, argi dago, lehen esan bezala, aurreko bi helburuak gauzatzearen araberakoak izango direla, hots; "Alde Zaharra" "egoitza zona" gisa berreskuratzea, eta kanpoko bisitarien hurbilerratasuna hobetzea.

Hala eta guztiz ere, funtsezkoa da bisitari horiek "Hirigunea" bisitatu edo bertan txango turistiko bisuala egiteaz gain, bertako merkataritza, ostalaritza eta jatetxeak baliatzea, eta kultur eskaintza zabal baterako aukera edukitzea. Zentzu honetan ondorengo ekintza hauek proposatzen dira:

-Helburu hauek lortzeko funtsezko elementu bat "**Alde Zaharreko**" eta bere espazio nagusi eta eraikinen **birgaikuntza fisikoa** bera izango da noski, -birgaikuntza lan hauen artean derrigorrez "Karlos V.aren Gazteluarena" eta "Arma plazarena" azpimarratu behar dira; bai eta "Harresiak" "erabilera publikorako" berreskuratzea eta irekitzea ere, "burgu harresidunaren" elementuen pertzepzio eta gozamena ahalbideratuko duena.

-**Merkataritza ihardueraren susperketa**, berrantolaketa eta irudi hobetzea, hirigintzakoak ez diren balizko ekintzez independenteki "-Bidasoa 93 Plana"-, arestian adierazitako birgaikuntza orokorreko ekintzekin sendotuko da. Egoitza eraikuntza berrietan -6.000 m²(s) baino gehiago- aurrakusten diren lokal aukera berrietan, egungo eraikuntzen birgaikuntzan eta hirigunearen erdialdean auri egoera partzialean dauden eraikuntza berreskuratzean oinarritu beharko da.

-**Kultur eskaintza hobetzea**, horretarako "Rameri Museoa" bezalako zuzkidurak efektiboki publikora irekitzea bezalako neurriak, edota "Olazabal finkan" aurrakusitako "Kultur Etxea" eta "Parroki Museoa" sortzea -"Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Parrokiak" interes historiko-artistiko handia duten fondoak ditu-, "Bidasoa Museoa" burutzea -"Bidasoa 93 Planaren" aurrakuspenera- edota aire zabalean "udarako auditorio" bat sortzea, "Gipuzkoa Plazak" baino baldintza hobeak eta edukiera handiagoa duena -erabilera hauetarako balizko kokapen bat "San Nikolas Babeslekua" izan liteke-.

32. HIA (jarraipena)

C)PLANGINTZAREN GARAPEN, HIRIGINTZA KUDEAKETA ETA EXEKUZIO HELBURUAK

*Azaldutako antolamendu eta interbentzio arazoen tamaina eta konplexutasunak, eta, batez ere, indarrean dagoen "kultur ondarea" babesteko legeriak ezarritakoari jarraiki -bai eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailak zentzu honetan formulatutako erabakiei jarraiki- "Alde Zaharrerako" proposatutako hirigintza garapenari esleitzen zaion **"birgaikuntza integraturako eragiketa"** izaerak beharrezkoa egiten du, inolako zalantzarik gabe, **"birgaikuntza integraturako plan berezia"** formulatzea, biltzen diren aurrerakinek, honako proiektu honek aurrikusitako eraikuntza eta hirigintza ekintza batzuek zuzenean exekutatzeko aukera ematea eskatzen dute -aldez aurretik aipatutako "planak" onespena duenentz kontuan hartu gabe-.

Aipatutako ekintzak ondokoak dira:

-**"Harategi kaleko Azterlan Xehekatuan"** proiektatutako **urbanizazio eraikuntza eta obrak exekutatzea**. Hauek bere eremuan dagoen antzinako "bolborategia" Udalari lagatzea eta ondorengo birgaikuntza barne hartzen dute -"ekipamendu komunitariorako" erabileretara destinatuko da-, bai eta "Harategi kalea" eta "Uria Harresia" lotuko dituen kale berri bat irekitzea ere, kale honek "Alde Zaharraren" bide sarearen funtzionalitatea esanguratsuki hobetuko du ⁽²⁷⁾.

-**"Karlos V.aren Gazteluaren eta inguruen Plan Bereziaren"** antolamendu aurrikuspenen garapena, honen edukia honako dokumentu honetan barnebiltzen da. Interbentzio honek "gazteluari" erantsitako "bolborategiaren" gainean eraikia dagoen "Josefina Enea" etxearen desjabetzapena barne hartzen du.

-**Antzinako eraikuntzen arrastoek afektatzen ez dituzten eraiki gabeko lurzatiek eraikuntza** -"Juan de Laborda kalearen" sartaldean kokatuak batik bat-, zeinek azken urteotan "lizentzia etendura" desberdinak jasan dituzten, onetsitako "plangintza" batean gauzatu ez direnak, honek Arearen egoitza berpizkundea etenarazi eta bere berrikuntza fisikoa oztopatu duelarik.

-Antzeko arazoak direla medio, **antzinako eraikuntzen arrastoek okupatzen dituzten orubeen eraikuntza** -Foru Aldundiko Kultura Departamentuak behin-behineko ezar ditzakeen murriztapen gehigarrien kaltetan izan gabe-, beti ere "Arau Partikular" honetan ezartzen diren "eraikuntza lerrokadura" eta "profil" baldintzei jarraiki.

⁽²⁷⁾Gaur egun exekutatzen ari da.

32. HIA (jarraipena)

*Ekintza hauez gain, eta, **arestian aipatutako "plan berezia" "behin-betiko" onesten ez den bitartean, gaur egungo eraikuntzetako birgaikuntza obrak** edota udal ekimeneko **urbanizazioaren konponketa obrak** -zolaketa hiri zerbitzuetako sareak- baino ezin izango dira burutu.

Zehazki, eraikuntzen hedadura interbentzio oro edota eraikuntza berriak debekatzen dira mugatutako "barne erreformarako arean" -32.1. BEA-, "plan bereziak" definituko ditu eremu honetarako beharrezko "antolamendu xehekatua" zehaztapenak, beti ere Arau honetan ezartzen diren "espazio publikoen" -bidetza eta afektatzen den "Harresiaren" zatia "espazio libretzat" hartzea-kalifikazio zehaztapenak errespetatuz.

*Halaber, **"plan berezia" onesten ez den bitartean**, indarrean dagoen "Euskal Herriko Kultur Ondareari buruzko Legeak" ezartzen duenaren indarrez, burutzen den urbanizazio, eraispen eta eraikuntza interbentzio orok **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuaren "aurretiatzko baimena"** behar du.

***Formulatu beharreko "birgaikuntza integraturako plan bereziaren" edukiari eta metodologi planteamenduari** dagokionez, aldeztu aurretik zuzenean exekutatu ez diren lehendik azaldutako interbentzio-irizpideak gauzatu beharko dituen, ondoko helburu eta irizpide espezifikoak ezartzen dira:

-Beharrezko informazio lanen artean, "Alde Zaharreko" **azterlan "historiko/arkeologiko" xehekatua** burutu beharko da -bidezko "arkeologi hondeaketa" lanekin osatuz-, bertan dauden interes historikoko aztarnak zehazki ezagutu ahal izateko eta, hau abiapuntutzat hartuta, zaindu beharreko elementuak irizpide egokiekin definitzeko, bai eta birgaikuntza prozesuan eta eraikuntza berrietan nahi ez diren suntsipenak gerta ez daitezen ziurtatzeko hartu beharreko babes neurriak definitzeko ere.

-**"NEURRI SL"** enpresak landutako **"gizarte eta hirigintza azterlana"** aspaldi burutu zela eta, **berrikusi eta eguneratu egin beharko da**, beharrezkoak diren "birgaikuntza integraturako" politikak definitzeko egungo arazoaren ezagupen zehatza bermatzeko xedez.

32. HIA (jarraipena)

-**Plan bereziak**", besteak beste, eta bereziki, ondoko antolamendu arazoei ekin beharko die:

.Afektatutako lurren eraikuntza baldintzak -honako proiektu honetan ezarritako parametro eta baldintzen barruan- definituko dituen **"barne erreformarako arearen" antolamendua -32.1. BEA-** , zaindu beharreko eraikinak eta suntsitu behar direnak barne hartuz.

Aipatutako eremuari esleitutako "probetxamenduen" antolamenduan, eta beharrezko hirigintza kudeaketarako tresnen definizioan, aurrikusitako antolamenduaren finantzaketa bidezkozteko helburua izango da kontuan, bertan aipatutako eremuan barne hartzen diren "Harresiko" eta "San Nikolas Babeslekuko" lurak "jabari publikoko" "espazio libretzat" "lagatzea" bilduko delarik.

Helburu honekin lurzorua okupazio indize altua ez da inolako eragozpena, antzinako "Madalen Kuboaren" bolumetria analogoz berreraikiko lukeen eraikuntza gorputza osatuko bailuke, eta eraikuntzak aurrealde luzeago eta jarraituago baten bitartez, oinezkoak "Portu auzotik" "Alde Zaharrera" "Jabier Ugarte kaletik" sartzea indartuko luke. Inolako zalantzarik gabe bertara heltzeko sarbiderik garrantzitsuen den honetatik sartu nahi izanez gero, gaur egun hutsune handia igaro behar da "Arma Plaza" edota "San Nikolas kalera" heltzeko.

Interbentzio honen beste zati bezala, jada aipatu dugun "San Kristobal Plazatik" "harresiaren" goialderako sarbide zuzena irekitzeko aukera aztertu beharko da. Aipatutako sarbidea ondo adierazita egon beharko du, aipatutako plazatik, espazio eta arkitektura ikuspegitik, ondo "irakurtzeko" moduan izan beharko du. Sarbide hau izango da "Harresian" zehar burutu beharreko "pasealekuaren" "hasiera" edo "amaiera" puntua.

32. HIA (jarraipena)

."Harresian" eta bertako babeslekuetan burutu beharreko interbentzioen trataera arkitektonikoei honako ekintza hauek barne hartuko dituzte:

-Erabilera publikora" irekitzea eta "Santiago Babeslekuaren" urbanizazioa. "Fraskueneko Murrua" eta "Jabier Ugarte Lorategietarako" sarbideak antolatzea barnebildu beharko luke.

-Fraskueneko Murrua" eta "Bikario Plaza" "San Felipe Babeslekuarekin" -Antzinako "Kasino Zaharraren" lorategiak- integratzea, horretarako finka hauek bereizten dituen finka -udal jabetza- "erabilera publikora" irekitzea eta bertan den eraikuntza botatzea galdatuko du.

-Bikario Plazatik" "Santa Maria Aterako" eta "Murrurako" sarbidearen balizko irekiera, aipatutako ateari itsatsita dagoen "Atalaya" etxea botatzea barne hartuz.

